


KOSKA bat estuago

Engranaje feministak unibertsitate
emantzipaile baterako



Izenburua: Koska bat estuago: Engranaje feministak unibertsitate emantzipatzaile baterako.

Egileak: Patricia Martínez García eta Delicia Aguado Pelaez (Aradia Kooperativa).

Eskerrak:

- Alberto Gastón Dapena
- Arrate Zelaia Eizaguirre
- Dalila Argueta Del Cid
- Ela Dorena perez
- Itziar Gandarias Goikoetxea
- Júlia Barjau Dachs
- Maitane Arnoso Martínez
- Margarte Bullen
- Nagore Lopategui Escallada
- Núria Gibernau Mitjana
- Vane Caballero Blanco

Maketazioa: Hari contando contigo Koop. Elkarte txikia.

Finantzazioa: Elankidetzaz. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Koordinazioa eta edizioa: Emaús Gizarte Fundazioa.

Donostia/San Sebastián, 2025.

Aitortza – “Compartir Igual” (by-sa)

Lizentzia honek obraren eta eratorritako balizko obren merkataritza-erabilera baimentzen du, baina hauen banaketa, jatorrizko obrak arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da. Hau da jatorrizko obratik abiatuta burutzen den obra deribatua, lizentzia berarekin ustiari beharko da.



Deskargatu gida osoa doan [**hemen**](#).



Aurkibidea

1	Sarrera.....	4
2	Menderatzearen piezak askatuz.....	6
3	Beste unibertsitate-eredu bat bultzatzeko palankak.....	8
	Nork aktibatzen ditu abiadura aldatzeko palankak?.....	9
4	Aldaketaren engranajeak.....	10
	Aliantzak.....	11
	Kontzientizazioa.....	15
	Irakaskuntza eta curriculum akademikoa.....	20
	Ekitatea.....	25
	Ikerketa eta ekintza.....	29
	Parte-hartzea.....	33
	Lan-politika.....	36
	Jasangarritasun ekologikoa.....	40
	Samurtasun erradikala.....	45
5	Muntatze-prozesuaren amaierako oharra.....	49
6	Muntatze-lanerako tresnak eta baliabideak.....	51





Sarrera

Krisi ekologikoa, gizarte-desberdintasunen hazkundea, mugak ixteko migrazio-politikak, hegemonia neoliberalak, eskuin-muturraren goraldia, memoria historikoaren galera, feminismoaren aurkako erreakzioak, erakundeekiko mesfidantza edota gorroto-diskurtso eta -praktiken gorakada gaur egungo gizartearen erronkak dira. Unibertsitatea ez dago egoera horretatik kanpo. Izan ere, inguruan gertatzen denak eragin egiten dio, baina **berak ere eragin egiten dio inguruan gertatzen denari**. Beraz, galdera hau sortzen zaigu: nolakoa nahi dugu izatea hark izango duen eragina? Menderatze-sistemak errepikatzen dituen erakunde moduan ulertzen dugu ala, alderantziz, haiei aurre egiteko gai den espazio gisa ikusten eta proiektatzen dugu?

Gida hau egiteko prozesuan parte hartu dugun pertsonok argi daukagu: **gizarte-eraldaketa emantzipatzaile batera bideratutako unibertsitate bat imajinatzen dugu eta nahi dugu**. Unibertsitatean sartzeko plazera (eta pribilegioa) izan genuenoi aukera-mundu bat ireki zitzaigun, langile-klasekoak izateagatik guretzat ez zela uste genuena. Hala bada, Aradiako leizean idatzitako orrialde hauek aurkako bi sentimendutatik sortu dira. Alde batetik, zalantzazko jarrera, daukagun eta egungo politika publikoekin sustatzen den goimailako hezkuntzarekiko. Bestetik, mirespen-eta aintzatespen-jarrera, erakunde honek tresnak eman baitzizkigun ekintzarako eta pentsamendu kritikoa garatzeko (baita beraren aurka ere!). Bateriaezinak izan ordez, jarrera horiek adoretu egiten gaituzte unibertsitate hau berreraiki eta parametro alternatiboetatik abiatuta muntatzeko.


Bokazio hori da, hain justu, **Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitateak** (hemendik aurrera, UPMS) sustatzen duena, eta esparru horretan kokatzen da testu hau. Jatorriz, proiektu globala da, eta 2003an sortu zen Munduko Gizarte Foroaren babesean, gune moduan, gizarte-mugimenduetako liderrak eta aktibistak, gobernuz kanpoko erakundeak eta erakunde zientifiko zein ikertzaileen parte diren pertsonak eta gizartearen eraldatzeko pedagogia kritiko eta emantzipatzaileekin konprometituta dauden artistak elkartzeko eta jakintzak trukatzeko. Hasierako mugarri horren ondoren, UPMSk hainbat lekutara bidaiatu du, eta ibilbide luzea egin du ezagutzaren ekoizpen bereizian. Hau da, elkarrekin ikastea, horizontaltasuna, elkarrekotasuna, elkarriketa, lankidetzak eta menderatze-modu guztiak zalantzan jartzea oinarri dituen jakintzen sare globala sortu du.

2022ko urrian bidaiatu zuen UPMSk Euskal Herrira, "Herriaren bazterretatik erresistentziak eraikiz unibertsitatearen merkantilizazioaren aurrean" lelopean, **Unibertsitate Kritikoa Sareak eta Emaus Gizarte Fundazioak** bultzatuta. Lehenbiziko topaldi hartan, eremu akademiko eta sozialetik tratatu beharreko lau larrialdi identifikatu ziren:



- 1) Ikuspegi feminista transbertsalizatzea.
- 2) Eskuin-muturraren goraldia gelditzea.
- 3) Krisi klimatikoari erantzutea.
- 4) Jarrera antirrazistak eta dekolonialak indartzea.

Bi urte geroago, UPMSren bigarren edizioan, larrialdi horiei heldu zitzaien berriro, **Emausek** eta **Mugarik Gabeko Ingeniaritzak** (MGI) koordinatuta.

Amesten dugun unibertsitatea muntatzeko helburuarekin, hala ikaskuntzak partekatzeko nola alternatibak sortzeko gogotik sortu da gida hau. Eta unibertsitate- eta gizarte-eredu alternatibo baten eraikuntzan sakontzen jarraitzeko produktu artikulatuen multzo oso baten parte da. Horren adibide da UPMSrekin lotutako irakasle, akademiko eta aktibistek egin duten ikerketa-lana: **Pedagogia Kritikoak. Gure aliatuak Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarako.**



Aurrekoarekin lotuta, orrialde hauetan orientabideak bildu ditugu, feminismoek beste gizarte-mugimendu batzuekin elkarlanean eskaintzen dizkiguten esparruetatik abiatuta unibertsitate-eredua koska bat estutzeko. Izan ere, erakunde bizi baten imaginarioa berreskuratu nahi dugu, estutzen gaituzten larrialdiei erantzuteko gai dena, eta aldaketaren tren-makina bihurtuko dena, gizartea jakintzarako eta esploraziorako lekua izan dadin. Eta, horretarako, unibertsitateko makineria beste begirada batzuetatik (edo beste begi batzuekin) birpentsa dadin behar dugu. Ez da lan erraza, eta, beraz, testu hau jarraibideen eskuliburu moduan sortu da, aldaketa-prozesuan lagundu diezagun, zatiak banan-banan muntatzen, lortu nahi dugun unibertsitatearen pieza guztiak elkartu arte. Aurretik, ordea, jada daukaguna deskonposatu behar dugu, balio duten zatiak aprobeztatzeko eta nahi ez dugun guztia baztertzeko. Ekin diezaiogun!





Menderatzearen **piezak** askatuz

KONTUZ!

Gure mundua agortzen ari da; ia baliabide guztiak erauzi ditugu, eta jada ez da gai sortzen ditugun hondakin guztiak xurgatzeko. Indarkeria matxista eta balio kontserbadoreen gorespena anplifikatu egin dira; ekonomia politikaren gainean eraiki da; iritzi ez-zientifikoak erruz zabaldu dira; nekropolitika kronifikatu eta legitimatu egin da mugak ixteko logika kolonial eta arrazisten bidez; aberastasunaren kontzentrazioa gero eta kezkagarriagoa da, eta munduaren zati txiki bateko kontsumoa jasanezina da gainerako lurraldeentzat.

Esan dezakegu eskuin-muturraren erreakzio neoliberal baten puntu gorenera iritsi garela abisatzen diguten alerta guztiak piztu direla, eta, hori horrela izanik, gure indarrak neurtzeko unea iritsi da: zein da unibertsitatearen egoera, larrialdi horiei aurre egiteko?



Gure ustez, unibertsitatea gune estrategikoa da gizarte-eraldaketa emantzipatzailerako, eta **funtsezko zeregina izan dezake ikuspegi feminista, antirrazista, ekologista eta dekolonial batetik eta gizarte-justiziarekin bat datozen proposamenak imajinatu eta garatzeko**. Alabaina, proposamen horiek sakabanatuta eta baztertuta daude, eta unibertsitateko makineria hala-hola dabil, pieza asko apurtuta eta herdoilduta daude, ez dute balio gizarte- eta ingurumen-justiziarako, baina oinarria badago. Hala bada, funtsezkoa da horiek identifikatzea, lanean hasi eta sobera dagoena baztertzeko. Zer ez dugu nahi?

⚠ **Indarkeria matxista**

⚠ **Balio kontserbadoreak**

⚠ **Iritzi ez-zientifikoak**

⚠ **Logika kolonial eta arrazistak**


⚠ **Nekropolitika**

⚠ **Aberastasunaren kontzentrazioa**

Europako testuinguruan, merkantilizazio- eta pribatizazio-prozesu bat bizi izan du unibertsitateak. Sistema honetan gauza guztiekin gertatu den bezala, ezagutza ere merkantzia soil bihurtu da. Horrela, kapitalismoak ongizaterako ematen dituen limosnak ahultzen joan diren heinean, goimailako hezkuntzak enpresa-eredua hartu du, guztion ongiarekin lotutako funtzio pedagogikoa alde batera utzita. Horren ondorioz, ikuspuntu indibidualetik arrakastatsuak diren profesionalak sortzera bideratuta dago irakaskuntza, eta haien interesei erantzuten dieten ikerketa-proiektuak gainfinantzatuta daude; gizarte- eta komunitate-ongizateari lotutakoek, aldiz, ia ez dute babesik aurkitzen.

Era berean, prozesu horiek haztegi ezin hobia aurkitu dute europar (eta, zehazki, euskal) unibertsitate batean, subjektu moderno burges baten parametroen arabera eraikia. Ezagutzaren bazterretara bidali da haren menderatze-imaginario antropozentriko, kapazitista, klasista, kolonial, patriarkal eta arrazista zalantzan jartzen duen guztia. Hau da, **mendean hartu ditu bere ereduarekin bat ez datozen ikuspegiak, metodologiak, gaiak, teoriak edota esperientziak**, eta, horrela, jarrera kontrahegemonikoak ahuldu ditu unibertsitatearen eremuan.

Dena den, erresistentzien espazioa ere bada unibertsitatea. Amparo Navarrok eta Cristina Vegak (2007) gogorarazten digutenez, unibertsitate feminista baten eraikuntza ezin da ibilbide lineal moduan ikusi, honela baizik: hegemoniaren aldera indarra egiten dutenen edo gizarteraldaketaren palankei tira egin eta lurrun iraultzaileari egurra botatzen diotenen arteko borroka-eremu baten emaitza gisa. UPMSren prozesua bera adibide da, eta jarrera erreakzionarioenei unibertsitatea nola lehiatu dakiekeen erakusten du. Bada, bell hooks-ek animatzen gaituen bezala (2021: 229) “mundu akademikoa ez da paradisua. Baina ikaskuntza bada paradisua sortu daitekeen leku bat”.






Beste unibertsiate eredu bat bultzatzeko palankak

Justizia ekologiko eta sozialarekin bat datorren unibertsitatea aldarrikatzean, haren oinarriak ikuspegi feminista, antirrazista eta dekolonialetik birpentsatzeko beharra sortzen zaigu. Horrek esan nahi du **interpretazio-esparru zabal eta integral bat antolatu behar dela**, testuinguruaren konplexutasunari ezin baitzaio erantzun proposamen isolatuen bidez. Horregatik, batera aktibatuko ditugu aldaketarako engranajeak martxan jartzen lagunduko diguten bi palanka: bizitzaren jasangarritasuna eta interseksionalitatea.

Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegiak sistema bere osotasunean zalantzan jartzea ahalbidetzen du, eta eraldaketa kultural, ekologiko, ekonomiko, politiko, sozial eta teknologikoaren paradigma moduan planteatzen da. Zaurgarritasuna azpimarratzen du giza existentziaren printzipio gisa, eta horrek aukera ematen du ilustrazioaren estandarrak (indibidualtasuna, abstrakzioa, unibertsaltasuna eta erabateko autonomia) oinarri hartuta eraikitako unibertsitate-makineria osoari buelta emateko. Aitzitik, zaintza-sare batekiko (interdependentzia) eta eratzen eta hartzen gaituen planeta batekiko (ekomendekotasuna) dugun mendekotasuna aitortzeak funtsezko aldaketa epistemikoak eragiten ditu, eta, ondorioz, aldaketak egituretan, metodologietan eta kontzeptu-esparruetan. Horrek guztiak kolokan jartzen du egitura hegemonikoa, unibertsitatearen lehentasunezko zeregina (bere funtzio pedagogiko eta ikerketazkoan) bizitza guztientzat bidezkoak eta seguruak diren bizibaldintzen bermatzaile bihurtzen baita.

Azken plural hori nabarmendu nahiko genuke, palanka hori aktibatzeak eskatu egiten baitu bizitzaren kontzeptua bera zeharkatu dezaketen botere-harremanei arreta jartzea ahalbidetuko digun beste mekanismo bat martxan jartzea. Horri dagokionez, **interseksionalitatea** feminismo beltzak gurekin partekatu duen tresna bat da, bidegabekeriak egitean zapalkuntza-sistemek duten elkarrekintza aztertzeko. Izan ere, sexu/genero sistema botere-harremanen moldatzaile argia bada ere unibertsitatean (eta handik kanpo), ez du bakarrik jarduten.

Patricia Hill Collins-ek (2000) proposatzen digun bezala, ikuspegi interseksionalak esparru konplexu eta erlazionalak eskaintzen dizkigu errealitatea testuinguruan interpretatzeko. Menderatze edo dominazioari forma ematen dion moldeak markatuko digu nor dagoen arauaren barruan eta nor dagoen kanpoan, eta, beraz, nork izango duen erakunde baten funtzionamendua, jardunbideak eta imajinarioa zehazteko boterea, kasu honetan unibertsitatearen eremuan. Baina, gainera, palanka honek aukera ematen digu zapalkuntza dagoen lekuetan erresistentziak ere badaudela ikusteko. Hau da, antolatzen ari diren estrategiak, proiektuak eta sareak, unibertsitatea bizitzei eustiaz arduratzen den erakunde PUBLIKOA izan dadin.




Zer esan nahi du horrek? Unibertsitateak honelakoa izan beharko lukeela:

- **Guztion ongiarekin** lotzen eta konprometitzen dena.
- Gizartean **pentsamendu kritikoa** sortzen laguntzen duena.
- **Boterea eta dominazioa zalantzan jarritz** irakasten duena.
- Pertsona guztien **sarbidea eta iraunkortasuna** bermatzen dituen.
- **Ikerketa gorpuztu, arduratsu eta ez-estraktibista** bultzatzen duena, beste herri eta komunitate batzuetako jardunbideak eta jakintzak barne hartuta.
- Kide dituen pertsonen **inplikazioa** sustatzen duena.
- **Lan-politika bidezkoa** eta zaintzekiko sentikorra ziurtatzen duena.
- **Ingurumenaren eta ekologiaren justizia** bultzatzen duena.
- **Bizitzeko egokia eta segurua** den espazio moduan eraikitzen dena.

3.1. Nork aktibatzen ditu abiadura aldatzeko palankak?

Palanka orok behar du tira egingo dion norbait. Kasu honetan, unibertsitatearen eraldaketaren dimentsioa hain da handia, indarrak hainbat posiziotatik mobilizatu behar baitira. Gida honetan, funtsezko bost eragile daudela jo dugu, eta beren tresnak hartu eta aldaketa muntatzen hasteko eskatzen diegu. Hauek dira:



1) Errektoretza

2) Irakasleak

3) Administrazioako eta zerbitzuetako langileak

4) Ikasleak

5) Gizarte-erakundeak eta -mugimenduak

Bost eragile horiek inplikatzearen garrantziak ez dakar ardurak modu simetriko edo orekatuan banatzea. Aldiz, horiek guztiak aldaketa-subjektu direla aitortzea da kontua, organigraman duten kokapenaren arabera eragin dezaketen neurrian. Horri dagokionez, argitu behar da unibertsitate-komunitatean botere-banaketa ez dela berdina eta, ondorioz, ezin direla betebeharrak eta konpromiso berberak esleitu. Bestalde, badakigu eragile bakoitzaren barruan posizioak ez direla ez simetrikoak, ez orekatuak; horrenbestez, sailkapen honetan kontu handiz ibili beharko da barneko botere-harremanekin.

Azkenik, unibertsitateko makineria ez da bere baitan agortzen, baizik eta eragina sortzen du beste erakunde eta administrazio-maila batzuetan, eta,aldi berean, haien eragina jasotzen du. Konturatu zinetenez, enpresa pribatua alde batera utzi dugu, amesten dugun unibertsitatean irabazia paradisuko ateetatik kanpo gelditu delako.



Aldaketaren engranajeak

Nahi dugun unibertsitaterako bidean mugimendua aktibatzeak behartu egiten gaitu erakunde honen makineriari eragiten dioten zenbait engranajetan jardutera. Horietako asko jada hasi dira biraka, feminismoak abiapuntu dituen unibertsitate-eredu emantzipatzailea desio bat izateaz gain, dagoeneko eraikitzen ari den prozesu bat baita. Dena den, bizitzaren jasangarritasunaren eta intersektionalitatearen palanekin, esparru komun baten piezak jartzen joan gaitezke, handik eraldaketa emantzipatzailerako bideratutako espazio bihurtu dadin unibertsitatea. Hau da, erantzun sendoagoak eman ditzan gaur egungo testuinguruan: eskuin-muturraren goraldia, misoginia, gorroto-diskurtsoen eta politika arrazista eta xenofoboaren zirkulazio askea, krisi ekologikoa, gero eta gizarte-desberdintasun handiagoak, eta, azken batean, kezka bakartzat kapitala duen sistema biozida baten gorespena.

Larrialdi horiei erantzun bananduak eman beharrean, epe luzerako eraldaketa bat proposatzen dugu, kateatua, bederatzi engranajeren artean:

- 4.1. Aliantzak
- 4.2. Kontzientizazioa
- 4.3. Irakaskuntza eta curriculum akademikoa
- 4.4. Ekitatea
- 4.5. Ikerketa eta ekintza
- 4.6. Parte-hartzea
- 4.7. Lan-politika
- 4.8. Jasangarritasun ekologikoa
- 4.9. Samurtasun erradikala

Engranaje horietako bakoitzak aldaketa bultzatzen duten estrategiak ditu, eta, aldi berean, eraldaketa horren arduraduntzat jo diren eragileek susta ditzaketen ekintzak biltzen dituzte. Jarraitu aurretik, bi azalpen eman behar dira. Lehenik eta behin, unibertsitaterako oro har pentsatutako jarraibideen eskuliburu bat da hau, eta, hori horrela izanik, beharrezkoa da hain iradokizun-sorta zabalaren mugak aitortzea. Horregatik, funtsezkoa da jarraibide hauek diziplina, sail edo ikasgela eta bulego bakoitzaren beharretara egokitzea. Bestalde, dokumentu hau eraikitzen ari den proposamen ireki moduan hartzea gustatuko litzaiguke, eta kontuan izatea beste begirada, korrante, espazio eta erakunde batzuetatik aberastu behar dela.

Azken batean, egiten dizkizugun proposamenak inspirazio gisa hartzera gonbidatzen zaitugu, proposamen horietatik abiatuta, amesten dugun unibertsitatea osatzeko **alternatibak imajinatu, sortu eta antola** ditzagun.



Aliantzak

Guztion ongiarekin lotzen eta konprometitzen den unibertsitatea


Unibertsitatean sortzen eta indartzen ditugun lankidetzak-harremanek eta ezagutzak trukatzeko harremanek sakondu nahi dugun erakunde-ereduaren arrasto asko ematen dizkigute. Gero eta joera handiagoa dago irabazi-asmoak dituzten erakunde eta enpresa pribatuez osatutako sareak lehenesteko, lurraldeen eta pertsonen ongizatearen kontura bada ere. Funtsezkoa da errealitate horri buelta ematea eta ahaleginak egitea **guztion ongira** eta, horrekin batera, justizia ekologiko eta sozialera **bideratutako lankidetzak-ekosistemen** parte izango den unibertsitate bat sortzeko. Nola egin dezakegu?

Erakunde ekofeministekiko lankidetzak indartzea eta zabaltzea

Joera merkantilizatzailea hausteko, balio ekofeministekin lotutako mugimendu, entitate eta erakundeekiko aliantzak lehenetsi behar dira. **Baterako proiektuak, ikerketak eta lankidetzak-jardunaldiak** sustatzeaz ari gara, baina baita unibertsitateak guztion ongiarekin duen konpromisoa bermatuko duten **hitzarmenak** formalizatzeaz ere.


Bestalde, funtsezkoa da lehendik dauden lankidetzak-sareak birplanteatzea, eta unibertsitatea erreferentzia bihurtzea erakunde eta enpresekiko harremanak blokeatzeko, baldin eta giza eskubideak urratzen badituzte edo baliabideak lapurtzen badituzte beste lurralde batzuetan zein beren lurraldean.

Aliantza hauek (eta beste batzuk) benetan eraldatzaileak izan daitezten, komunikazio arina egon behar du, entzute aktiboan, elkarrekiko errespetuan eta konfiantzaren eraikuntzan oinarritua. Noizean behin lankidetzan aritzea baino gehiago da. Lotura sendo eta iraunkorrak ehundu behar dira, harreman estraktibistak saihestu eta kokatutako jakintzen balio politiko eta epistemikoa aitortuko dutenak. Modu horretan soilik hartu ahal izango du unibertsitateak guztion ongiarekin konprometitutako eragilearen jarrera, gizarte-mugimenduekin batera trantsizio bidezko eta ekofeminista baterantz bidea egiteko gai.



Komunitatearekin lotzea espazioak eta jakintzak trukatzuz

Imajinatu al dezakegu campusetan hasi eta amaitzen ez den unibertsitate bat, dagozkion komunitateetan irakaskuntza- eta pentsamendu-gune moduan dituen aukerak zabaltzen dituen? Horri dagokionez, garrantzitsua da unibertsitateak sentitzea **lurraldearen beharrei** erantzun behar diela, eta, hala, ezagutza-ekarpena egitea garapen komunitarioko prozesuetan. Inspiratzeko, Abya Yala-ren unibertsitate-testuinguruari eta haren hedapen kritikoko ereduari errepasa diezaiekegu, akademiak gizartearekin eta dagokion ingurunearekin duen konpromisoaren adibide baitira. Ildo horretatik, Ikerketa eta ekintza parte-hartzailea (IEP) bezalako tresnek esparru zehatzak eskaintzen dituzte unibertsitatea eta komunitatea lankidetzaz-prozesu horizontal eta politikoki konprometituen bidez lotzeko. IEPei aukera ematen du lurraldearen beharretatik abiatuta ezagutza eraikitzeko, kokatutako jakintzak legitimatzeko eta eraldaketa partekatua sortzeko, eta, gisa horretan, proposamen honek bultzatzen duen jakintza- eta espazio-trukea gauzatzeko bide praktikoa bihurtzen da.



Sare feministak bultzatzea

Unibertsitatea eraldatzeko, bai barne-funtzionamendua, bai kanpoan duen eragina, funtsezkoa da sare feministak sortzea eta indartzea, betiere antirrazistak, antikapazistak edota LGBATIQ+fobiaren aurkakoak diren mugimendu eta erakundeekin antolatuta.

Eta zer egin dezaket nik **aliantzen** **engranajea** aktibatzeko?

Eragile guztiek esku hartu dezakete aliantzetan, baina botere material eta sinboliko handiagoa dutenez, errektoretzaren eta irakasleen eragina askoz handiagoa da.

Errektoretzako kide bazara:

- Jarri martxan gizarte-erantzukizunarekin lotutako organoak, ekonomia soziala eta solidarioko erakundeekin, kolektiboekin eta gizarte-mugimenduekin lankidetzan formalizatzeko eta hainbat jarduera antolatzeke, enpresa pribatuak alde batera utzita.
- Sustatu espazio egonkorak, unibertsitatean gizarte-ehunaren presentzia bermatzeko eta gizarte-erakundeekin eta irakasleen artean jakintzak partekatzeko (adibidez, herritarren laborategiak, lan-gelak, landa-unibertsitateak).
- Hautsi giza eskubideak urratzen dituzten korporazio handiekiko akordioak.
- Ez legitimatu biozidak eta ekozidak diren erakundeak. Eta horrek berekin dakar beste unibertsitate batzuekin harremanak haustea, giza eskubideak betetzen dituztela ziur ez dakigun bitartean.
- Egin gizarte-mugimendu eta -erakundeekin alde, solaskide nagusi moduan. Aprobetxatu eta elika zaitez lehendik dauden lankidetzan-ekosistemek sortutako espazioez, Unibertsitate Kritikoa Sarera (UKS) edo UPMSrenez adibidez!
- Bultzatu jarduera partekatuak beste erakunde batzuekin, hala nola liburutegiekin, museoekin edota eskolekin, lurraldean sustraitzeko.

Irakaslea bazara:


- Egin lankidetzan-ekosistema kritikoak antolatzearen alde, lankidetzan sustatzeko ekonomia soziala eta solidarioarekin, espazio komunitarioekin eta bokazio emantzipatzailea duten gizarte-mugimendu eta -erakundeekin lankidetzan sustatzeko.
- Esploratu ikerketa-metodologia aktibo eta kokatuak, adibidez: Ikerketa eta ekintza parte-hartzailea (IEP).
- Balioetsi espazio komunitarioetako proiektuak, esperientziak eta jakintzak, gizarte-mugimenduekiko lankidetzan errazteko, bai ikerketa- eta ekintza-mailan, bai irakaskuntza-mailan. Gogoratu dena ez dela hirian hasten eta amaitzen. Aitzitik, zu tartean sartzeko moduko ekimen eta prozesu asko daude landa-eremuan.
- Bultzatu eta indartu sare feministak.
- Jardun eraldaketa ekosozialerako ekimenen bozgorailu moduan.
- Lagundu ikasleei lurraldean inplikatzeko, inguruko espazioetan parte hartzera animatuz.

Ikaslea bazara:

- Lagundu, sartu eta/edo parte hartu EHUKo campusetan (eta ez bakarrik) aurkituko dituzun ikasle-elkarteen jarduera eta kanpainetan: sindikatuak, kolektibo feministak, antirrazistak, etab.
- Saiatu zure gelako lanek eta, bereziki, GALEk eta MALEk tokiko komunitateak, elkartek eta kolektiboak (hirikoak nahiz landakoak) inplika ditzaten, zure inguruneari eragiten dioten arazoak tratatzeko.
- Aprobetxatu ikasgeletatik kanpo ikasteko aukerak. Esate baterako: praktikak egin ditzakezu edo parte hartu dezakezu Zerbitzu-Ikaskuntzako prozesuetan, zeure burua lurraldeko erakundeekin lotzeko.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Sustatu harreman horizontal eta ez-estraktibistak.
- Inplikatu unibertsitateko irakasleak edo ikasleak zuen erakundean garatzen dituzuen jardunaldi edo ekitaldietan.
- Gainera, unibertsitateko eragilea bazara, jardun bi munduen arteko zubi-lanetan.
- Sortu sareak gizarte-eraldaketa emantzipatzailea bultzatzeko mobilizatzen ari diren unibertsitateko irakasle-, ikasle- edota administrazio-talde edo -erakundeekin.





Kontzientizazioa

Gizartean pentsamendu kritikoa sortzen laguntzen duen unibertsitatea

Paulo Freire-ren (2003) "kontzientizazio" terminoa hartu dugu, hezkuntza tresna moduan errebindikatzeko, pertsonak beren zapalkuntzaren arrazoiez jabetu daitezen eta horiek aldatzeko helburuarekin kolektiboki mobilizatzea erabaki dezaten. Hezkuntza-erakunde gisa, unibertsitateak funtsezko zeregina du gure gizarteari eragiten dioten gaiei buruzko sentsibilizazio handiagoa sortzeko. Hau da, funtsezko espazio bat da **pentsamendu kritikoa** sortzeko, eta, hortik, bizi dugun testuinguruak eskatzen dituen aldaketa-prozesu emantzipatzaileetan inplikazioa sustatzeko. Nola egin dezakegu?

Prestakuntza eta sentsibilizazio feminista indartzea

Gaikuntza funtsezko tresna bat da arrotzak zaizkigun beste errealitate batzuei buruzko ezagutza eskuratzeko, beste pertsona batzuegandik eta haiekin ikasteko, eta inguratzen gaituenaz ikuspegi feminista batetik jabetzeko. Ez gara soilik ari eskoletara joateaz eta ikastaroetan izena emateaz, baita **inguruan ditugun prestakuntza-baliabide guztiak aprobetxatzeaz** ere: artikulua eta argitalpen akademikoak; erakunde- eta gizarte-gordailuak; ikus-entzunezko baliabideak, hala nola dokumentalak, filmak, podcastak, telesailak edo bideojokoak; gizarte-eraldaketa emantzipatzaileari lotutako erakundeek antolatzen dituzten jarduerak, edo esperientziak partekatzeko espazio kolektiboak. Prozesu honetan, zenbait tresna, esperientziak sistematizatzea adibidez, prestakuntza feminista kritikoa indartzeko giltzarri moduan aurkezten dira. Sistematizazioa, arma politiko gisa ulertuta, bizi izandakoari buruz hausnartzera eramango duena, eta ikaskuntzak agerian jartzea, oztopoak identifikatzea eta ikuspegi kokatu batetik eraldaketak proiektatzea ahalbidetuko duena.

Gizartea politizatzen laguntzea


Azken urteetan, politizazio hitza biziari egin da, edo, kasurik onenean, edukiz hustu; beraz, unibertsitateak bere gain hartu behar du termino horri esanahia itzultzeko ardura. Politizazioak zuzeneko harremana du pentsamendu kritikoarekin; izan ere, **arazoak, beharrak eta nahiak kolektibizatzea** dakar, horiei dimentsio publikoa ematea eta, hala, tratatu beharreko gai-zerrendaren parte direla identifikatzea.

Horri dagokionez, unibertsitatea espazio pribilegiatua da, ezagutza eta jakintzak sustatzeko gizartean eta erakundearen artean duen legimititateagatik. Hori dela eta, garrantzitsua da **neutraltasun faltsuko irudi batetik aldentzea** eta egiturazko azalpenak emateko ardura bere gain hartzea, gizarte-errealitatearen konplexutasuna barne hartuta. Eta, aldi berean, pentsamendu-espazio moduan duen funtsezko zereginaz jabetzea, gorroto-diskurtso eta -praktikei erantzunak emateko eta gaur egungo egoeraren erronketan justizia ekologiko eta sozialerako proposamenen buru izateko.

Gizarteari ezagutza transferitzeko konpromisoa hartzea

Hezkuntza-erakundea eta pentsamendulekua den aldetik, unibertsitateak **tokiko komunitateekin eta ingurunearekin konektatuta** egon beharko luke. Behar hori urrun dago argitalpen-enpresek kontrolatzen dituzten eragin handiko aldizkarietako argitalpenetatik, ordainpekoak askotan, hizkuntza akademiko batean idatziak, ingelesera itzuliak (hizkuntza akademiko hegemonikoa baita) eta lurraldean gertatzen denarekin loturarik ez dutenak (badakigu sortutako ezagutza zenbat eta abstraktuagoa izan, orduan eta handiagoa dela egungo transferentzia-ereduak ematen dizun saria).

Dinamika pribatizatzaile eta elitista horien aurrean, jakintza akademikoak zabaltzea proposatzen da, testu irekien bidez, eta gaiak sakonago jorratuta. Hitzaldiak eta jardunaldiak egitea lurraldeetan edo interesa duten biztanleekin, akademian egiten ari diren hausnarketen itzulera ahalbidetuz eta, aldi berean, herri-ikaskuntzetatik edanez. Alde horretatik, funtsezkoa da, halaber, alderdi linguistikoa kontuan izatea eta hizkuntza gutxituen alde egitea. Azkenik, ingurune digitala aipatu behar da, aukera onak eskaintzen baititu dibulgazioa toki askotan egin behar denerako.



**Eta zer egin
dezaket nik
kontzientizazioaren
engranajea
aktibatzeko?**

Unibertsitate-sistema osatzen duten eragile guztiak dira norberaren eta ingurunearen kontzientzia-hartzearen erantzule, neurri handiagoan edo txikiagoan. Beraz, zeure buruari galdetzen badiozu nola eragin dezakezun unibertsitatea pentsamendu kritikorako eta ekintza eraldatzailerako espazio moduan indartzen, proposatzen dizugun lehen gauza, oro har, **zure posizioa ikuspegi interseksionaletik birpentsatzen** hastea da. Hau da, galdetu zeure buruari zer posiziotan zauden, eta hausnartu horri buruz. Problematizatu jasan ditzakezun diskriminazioak, baina ez ahaztu zure pribilegioak zalantzan jartzea. Saiatu prestakuntza bilatzen, sentsibilizatzeko eta dominazioa errepikatzen duten jarrerak, ikuspegiak eta begiradak desaktibatzeke tresnak eskuratzeko. Baina hori ez da egin dezakezun gauza bakarra, eta, horrenbestez, beste ekintza batzuk proposatzen dizkizugu.

Errektoretzako kide bazara:

- Babestu, lagundu eta, ahal duzun neurrian, handitu unibertsitateko eragileen prestakuntzarako aurrekontu-partidak.
- Inplikatu bidegabekerien eta gorroto-diskurtsoen aurkako salaketetan. Saiatu sustatzen bai herri-ekimenak (Erregularizazioa Orain LHE, adibidez), bai komunikatuak Palestinako genozidioa, indarkeria matxistako kasuak (baita unibertsitatean ere) eta antzekoak salatzeke.
- Babestu justizia ekologiko eta sozialarekin bat datozen ekintzak eta mugimenduak. Jarrera ustez neutralak ideologia hegemonikoen aliatuak izaten dira beti.
- Lagundu gezurrak desegiten, akademiaren legitimitatea eta gune zientifiko moduan duen aintzatespena aprobetxatuz.
- Planteatu proposamenak eta proiektuak, justizia ekologiko eta sozialetik gizarte-erlaketak imajinatzen, antolatzen eta garatzen lagunduko dutenak.
- Bultzatu etengabeko prestakuntza eta herritar guztiei irekitako ikaskuntza-espazioen sustapena, kontzientizatzen laguntzeko.
- Zabaltu unibertsitatea campusetatik harago: eraman herri eta auzoetara, kongresu, jardunaldi edo beste jarduera batzuen bitartez. Eta gogoratu: landatarra ere hor dago, eta, ziur asko, zu hurbiltzea nahi du!
- Eraiki mentoretza-espazioak, eragileen artean ikuspegi feminista sozializatzeko.



Irakaslea bazara:

- Parte hartu hedabideetan, sare sozialetan eta zure inguruan garatzen diren jardueretan, krisi ekologikoaz, indarkeria matxistaz, arrazakeriaz eta xenofobiaz edo gero eta handiagoak diren gizarte-desberdintasunez sentsibilizatzeko, besteak beste.
- Saiatu eskura dituzun bozgorailuak ahal duzun guztietan erabiltzen, fake news deritzen eta gezurren aurkako diskurtso eta argudioei aurre egiteko.
- Nahi ez arren, erreferentziazko pertsona bat zara, eta, hortaz, zure ingurunea politizatzeko aprobeitza dezakezun gune bat izan daiteke eguneroko bizitza. Jakina, erreferentzia bat zara baita ikasgelan ere, eta, beraz, ez ahaztu zure iritziek ikasleen artean zein zure kidesatasun-taldeetan izan dezaketen garrantziaz.
- Ireki ikasgela komunitateko pertsonen eta kolektiboen, ekonomia alternatibo eta solidarioko erakundeen edo gizarte-mugimenduen, errealitate desberdinei buruz eta ahots propioarekin hitz egin dezaten, kokatutako esperientzietatik abiatuta.
- Balioetsi beste mundu-ikuskera, jardunbide eta jakintza batzuk.
- Sortu kontzientzia software librearen eta Fedibertsoren erabileraren gainean. "Federatu" eta "unibertsitate" hitzen akronimo honek aplikazio eta sare sozial alternatiboen sistema deszentralizatu eta federatu bati egiten dio erreferentzia, eta indartzen lagundu dezakezu, irabazizko merkataritza-plataformen eredu alternatiboa izan dadin.
- Ahal duzun neurrian, saiatu argitaratzeagatik ez ordaintzen eta/edo ordainpeko aldizkarietan ez argitaratzen, idatzi zure unibertsitateari dagokion lurraldeko erreferentziazko hizkuntzetan, eta izan dadila testua sarbide askekoa.
- Ahalegindu lineako gordailu bat sortzen, gizartean ikaskuntza errazteko tresnekin eta materialekin.

Ikaslea bazara:


- Joan prestakuntza araututik harago. Badakigu egunean ordu asko ematen dituzula prestatzen, baina ausartu zaitez zure jomuga emantzipatzaileak zabaltzen, deserosotasun handiena eragiten dizuten gaitara hurbilduz, eta esploratu, gizarte-justiziarekin lotuta, a priori grazia handirik egiten ez dizuten edo arrotzak zaizkizun jakintzagaiak.
- Jabetu ongi inguruan daukazuena, aprobeitxatu unibertsitatearen aukera zure pentsamendu kritikoa indartzeko eta zure espazioetara eramateko.
- Egon adi irakaskuntza-jardun diskriminatzaileak edo giza eskubideekin bat ez datozenak hautemateko.
- Zabaldu zure MALa edo GALa zure ingurunean, ikasi duzuna besteei helarazteko.
- Espazio antolaturen batean parte hartzen baduzu, gonbidatu edo saiatu zure inguruko ikasleak tartean sartzen.

AZL bazara:

- Aukera izanez gero, parte hartu ikuspegi feminista, antikapazitista, antirrazista edo ekologistari buruzko ikastaro eta tailerretan, eduki horiek zure zereginetan aplikatu ahal izateko, eta, gisa horretan, errespetuzkoagoak eta jasangarriagoak izan daitezen. Adibidez, pertsona guztiei errespetuzko tratu inklusiboa emateko, aurreiritzi edo estereotipoak ez errepikatzeko, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa egiteko edo indarkeria matxistako kasuetan nola jokatu sakontzeko.
- Sortu kontzientzia software librearen erabileraren gainean.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Koordinatu, bultzatu eta lagundu, jakintzak trukatzeko espazio bat sortzeko.
- Partekatu eta lagundu, gizarte-eraldaketara bideratutako hezkuntza bultzatzen duten tresnen gordailu bat garatzeko.





Irakaskuntza eta curriculum akademikoa

Boterea eta dominazioa zalantzan jarriz irakasten duen unibertsitatea

Unibertsitatearen funtsezko zereginetako bat hezkuntza-erakunde moduan betetzen duen funtzioa da. Bultzatzen duen irakaskuntza-eredua curriculum akademikoan jasotzen da. Azken horretan zabaltzen dira ikaskuntza zehazten duten ikasgaiak, helburuak, jarduerak edota gaitasunak. Zer eduki ematen ditugu? Zer metodologia erabiltzen ditugu? Zer emaitza espero ditugu? Nola ebaluatzen dugu? Kontrakoa esan badigute ere, galdera horien erantzunak ez dira bakarrik, ezta adiera bakarrekoak ere, irakaskuntza-jarduna ez baita neutrala, eta horrek eragina du ikasleen ibilbide eta esperientzietan. Beraz, funtsezkoa da **gure ikasgelak berrikustea, haiek zeharkatzen dituzten botere-harremanen joerak identifikatzea eta, horrekin batera, joera horiek gainditzeko estrategiak garatzen hastea**. Nondik hasi gaitezke?

Ikusezin bihurtutakoa agerian jartzea

Desparekotasunak identifikatzeko lanak tipularen geruzetara eraman gaitzake. Zatiarik azalekoenean gelditu gaitezke eta emakumeak zenbatu ditzakegu (hori jada ez da gutxi!), edo ikuspegi feminista bat hartu dezakegu eta azalak kentzen joan gaitezke, dominazioaren muinean sartu arte. Esposizio progresiboko ariketa horrek emango digu aukera araua argitzeko eta, horrekin batera, modernitateko subjektu pribilegiatuak ezkututzen duen neutraltasun-eta inpartzialtasun-ilusioa hausteko; izan ere, subjektu horrek, unibertsala izan beharrean, oso ezaugarri zehatzak ditu (heldua, zuria, zisgeneroa, funtzionaltasun normatiboa duena, klase dirudunekoa, iparralde globalekoa, heterosexuala, hiritarra eta gizonezkoa).

Araua ezartzen duena subjektu zehatz eta pribilegiatu horren begirada da: zer zeregin balioesten diren gehiago (adibidez, bozeramailtza), komunikatzeko zer modu diren legitimatuagoak (arrazionalak, seguruak eta lasaiak), edo zer ikasgai, metodologia, pertsonaia edo erreferentzia diren aintzatespen akademikoa merezi dutenak (zuriari, maskulinoari eta aurrerapenean eta arrazoimenean oinarritutako mendebaldeko pentsamenduari lotuak). Horiek guztiek ez diote curriculum ofizialari soilik eragiten. Aitzitik, ezkutuko curriculumarekin lotutako alderdi guztiak baldintzatzen dituzte (eta asko gainera!).



Gaiak eta metodologiak deskolonizatzea eta despatriarkalizatzea


Isiluneak ugariak dira gure ikasgeletan. Diziplina gehienetan, gutxi edo ezer ez da hitz egiten emakumeek, nekazariak, funtzionaltasun ez-normatiboko pertsonak, pobretuek, indigenek edo hegoalde globalekoek, LGBATIQ+ kolektibokoek, arrazializatuek edo mendeko beste edozein kolektibok egindako ekarpenez. Horrek norbere burua ordezkatzuta sentitzeko **erreferentziak sortzeari** eragiten dio, baina baita gertaera historikoei buruzko **narratibak eraikitzeari** edo historia denaren definizioari berari ere. Eta ez dezagun ahatz eskola magistralaren nagusitasuna baliozko formatu bakar moduan; irakaslea edukiak hitzaldi-eran azaltzen, eta ikasleak entzuten.

Horrela, zure bibliografia eta materialetan, eduki edo metodologietan jomugak zabaltzera gonbidatzen zaitugu. Hartu inspirazioa **herri-hezkuntzatik**, eta aintzatetsi zure ikasleak eta komunitateak (eta horien askotariko jakintzak) ezagutza-subjektu gisa. Pedagogia Kritikoak. Gure aliatuak Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarako ikerketalanean, UPMSren babesean eta EHUKo Psikologia Sailarekin lankidetzan egina, inspirazioa hartzeko hainbat hausnarketa eta proposamen aurkituko dituzu.

Eredu ekonomiko alternatiboen irakaskuntza indartzea

Ekonomia kapitalistak irakaskuntza bereganatu du ia bere osotasunean, eta ia ez dago lekuri beste ekonomia batzuentzat. Unibertsitateak irabazi-asmorik gabeko espazio bat izan beharko luke, eta, beraz, funtsezkoa da ikasketa-planak zabaltzea, alternatibak irakasteko eta hedatzeko, hala nola antolamendu publiko-komunitarioko moduak edo **prokomuna**, baliabide edo ondasunak komunitatean partekatu eta modu kolektiboan kudeatzen direlarik. Horretarako, kapitala hazteko eta biltzeko interesa komunitatearen ongizatea bilatzera aldatu behar da, erantzukidetasunari eta nahikotasunari dagokienez. Helburu horrekin, oso garrantzitsua da ikuspegi kritikoak sartzea, ekonomia alternatibo horiek —Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS), esaterako— hutsetik ez datozela ikusarazteko, baizik eta aspaldiko, lurraldeko eta komunitateko jakintzeekin sakon lotuta daudela, nahiz eta askotan akademia hegemonikoak ikusezin bihurtu dituen. Ezagutza testuinguru espezifikoetan

kokatzeak aukera ematen du eztabaida historikoak berreskuratzeke eta interes globalek tokiko dinamiketan nola eragiten duten ulertzeko, eta, hala, bidea irekitzen zaie krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko irtenbide propioei. Esparru honetatik, ekonomia kapitalistaren logika produktibistak zalantzan jarri behar dira, bizitzak eskatzen dituen denbora eta zaintzekin gatazkan sartzen baitira. Horretarako, unibertsitateak, beste ekonomia batzuk irakasteaz gain, bere funtzionamendua ere eraldatu behar du, askotariko jakintzak aintzatesten lagunduz eta gizarte-eragile heterogeneoekiko lankidetzara bultzatuz.




Ebaluazio-metodo alternatiboak sustatzea

Logika produktibistek ebaluazio-dinamiketan bertan eragiten dute, arrakasta indibidualean oinarritutako lehia-formulak eta emaitzetan oinarritutako errubrikak lehenesten baitira. Alabaina, **unibertso oso bat dago ikasleek gaitasunak lortu al dituzten baloratzeko** (baita gaitasunak berak birplanteatzeko ere!): autoebaluazioak edo koebaluazioak; proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, zerbitzu-ikaskuntza edo lekuan oinarritutako hezkuntza; lan-kontratuak edo bidaia-koadernoak, ikuspegi feminista txertatzeko tresna moduan.

Eta zer egin dezaket nik irakaskuntzaren engranajea aktibatzeko?

Irakaskuntzan duen funtsezko zeregina dela eta, engranaje hau oso lotuta egongo da irakasleekin, baina baita errektoretzarekin ere, ikasketa-planak gainbegiratzeko eta onartzeko ardura baitu. Beraz, bi eragile horietakoren bat bazara eta zeure buruari galdetzen badiozu zer ekarpen egin dezakezun zuk zure irakaskuntza-prozesuek dominazioari aurre egin diezaioten eta botere-harremanak zalantzan jar ditzaten, zenbait ekintza proposatzen dizkizugu.



Errektoretzako kide bazara:

- Berrikusi ikasketa-planak ikuspegi interseksionaletik.
- Sendotu eta indartu unitate espezializatuak (jarrera kritikoarekin), irakaskuntza-curriculumak berrikusteko eta haiekin jarduteko.
- Sartu genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala zeharka irakaskuntza-planetan.
- Indartu generoaren, feminismoen eta beste ikuspegi kritiko batzuen ikerketei buruzko ikasgai espezifikoaren presentzia.
- Zalantzan jarri unibertsitatea bultzatzen ari den arrakasta-eredua, hazkunde ekonomikoari eta lehiakortasunari lotutako prestigioa indartzen ari dena.
- Presioa egin Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalari (ANECA), irakaskuntzak zentralitatea berreskura dezan ibilbide akademikoan.

Irakaslea bazara:

- Zabaldu edukiak eta materialak kulturartekotasun kritikotik.
- Berrikusi zure iturriak eta materialak, eta saiatu egile feministei eta bazterretako kolektiboek buruzko erreferentziak sartzen.
- Aurre egin arauari zure irakasgaiari (aukeren mundu bat aurkituko duzu!).
- Animatu zure ikasleak, begirada kritiko eta emantzipatzaileetatik heldu diezaieten beren GALEi eta MALEi.
- Esploratu parte-hartzaileak eta/edo herri-hezkuntzatik edo kultura komunitariotik datozen metodologiaren erabilera, horizontalagoak diren eta lankidetzari handiagoa duten ikaskuntza-espazioak eraikitzeko.
- Kontuan izan ikaskuntzaren alderdi afektibo eta emozionalak, esperientziazkoa eta egiturazkoa elkarren artean lotzeko. Adi! Ondoz indibidualen politizazioa eta terapia-saio indibidualizatuak (eta indibidualizatzaileak) ez dira parekoak.
- Prestatu zeure burua ikasgelan sortu daitezkeen desadostasunak eta gatazkak lantzeko metodologietan. Pedagogia kritikoetan sakontzeko, garrantzitsua da desadostasuna besarkatzea, baina are garrantzitsuagoa da hura nola kudeatu jakitea!
- Lantaldeetan, sustatu zenbait tresnaren erabilera, hala nola lan-kontratuak edo bidaia-koadernoak ikuspegi feministarekin, rolak eta zereginak generoaren arabera ez banatzeko.
- Kontuan izan produktiboa denarekin eta erreproduktiboa denarekin lotutako alderdiak (eskatu prozesuak azaltzeko, eta ez emaitzak soilik, adibidez).

-
- Argitu ebaluazio-moduak eta, ahal den neurrian, egin akordioak ikasleekin, askotariko profiletara egokitu zaitezten (funtzionaltasun ez-normatiboak eta neurodibergentziak, etab.).
 - Aztertu zure irakasgaien errubrikak ikuspegi feministatik: Zer ari zara gehiago baloratzen? Zer ari zara ikusezin bihurtzen? Izan al ditzake horrek berariazko ondorioak ikaslearen profilaren arabera?
 - Zerrendatu eta baloratu lantaldeek egin behar dituzten zeregin erreproduktiboak (ez dago emozioen kudeaketarik gabe funtzionatzen duen talderik!).
 - Gogoratu zure ikasleek ere izan ditzaketela zaintza-ardurak edo haien existentzia ikasgelatik harago doala.
 - Sustatu software librearen erabilera ikasleen lanetan, creative commons emaitzak argitaratzeko eta kontsultatzeko, eta Fedibertsoa dibulgaziorako. Beste era batera esanda, lagundu programa informatikoen sorkuntza, banaketa eta erabilera modu kolaboratibo eta librean ulertzeko modua zabaltzen; eta egin zure ekarpena sorkuntzako ondasun komunetan (irabazi-asmorik gabe kulturarako sarbidea eta trukea sustatzeko) nahiz sare sozialen sistema deszentralizatu eta alternatiboan.

Kontuz! **Ikasle moduan**, zure zeregina funtsezkoa ez den arren eta botere-balantza zure aldekoa ez bada ere, baduzu zer egin:

- Animatu zure lanetan, GALEan edo MALean subalternizatutako erreferentzialitateak eta gaiak txertatzera. Ideia eta aholku praktikoak aurkituko dituzu hemen: Arrailan: Akademia-lan eraldatzaileak elaboratzeko gida (Unibertsitate Kritikoa Sarera, UKS).
- Saiatu ahotsa altxatzen ikusten baduzu irakasleek jakintza batzuk ikusezin bihurtzen dituztela, ikaskideren bati balioa txikitzen diotela, zenbait korronteri legitimitatea kentzen dietela, etab. Desobedientzia funtsezko tresna bat da autoritatea eta egitura hegemonikoak zalantzan jartzeko. Eta gogoratu! Taldean beti hobe da protesta.
- Ez saihestu zure ardurak talde-lanetan: inplikatu zeregin erreproduktiboetan, balioetsi zeregin horiek, banatu lan-karga eta zaindu taldekideak.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Eskaini zure jakintzak eta esperientziak ikasgelan ematen diren ikasgaiak aberasteko.
- Partekatu metodologiak eta tresnak.
- Ireki zure erakundearen edo espazioaren ateak, unibertsitateak ikaskuntzak eta proiektuak lurraldean kokatzerik izan dezan.



Ekitatea

Pertsona guztien sarbidea eta iraunkortasuna bermatzen dituen unibertsitatea

Unibertsitateak bermatu behar du ikasi nahi duten pertsona guztiek horretarako aukera izango dutela, haien ahalmenak, gizarte-klasea, adina edo jatorria edozein izanda ere. Baina ez da nahikoa iristeko erraztasunak ematea. Aldiz, pertsonak bertan **gelditu eta ibilbide akademikoaz gozatu ahal izateko** behar diren baldintzak eskaini behar ditu, graduez, graduondokoez (masterrak eta doktoregoak) nahiz praktikez ari garela. Horrela, unibertsitateak ekitatea izan behar du oinarri, eta horrek esan nahi du pertsona guztien nahi, interes eta beharretara egokitu behar duela, denen aniztasuna aintzat hartuta. Nola egin dezakegu?

Goi-mailako hezkuntza publiko eta eskuragarria ziurtatzea pertsona guztientzat

Goi-mailako hezkuntzan sartzea eta bertan egotea epe luzerako inbertsio bat da, eta ez dago pertsona guztien eskura. Espainiako testuinguruan, doakotasuna ez dago ziurtatuta, eta bekak gero eta mugatuagoak dira, desberdintasun sozioekonomikoak handitzen ari baitira. Aurrera egin ahala, gero eta zailagoa da unibertsitatean egotea, eta ikerketa-ibilbidean aurrera egiten jarraitzea malda-gora egiten da. Graduondokoak oso garestiak dira, ikerketarako bekak oso gutxi dira, eta ikerketa-bizitza eta bestelako enpleguak uztartzeko baldintzak oso konplexuak dira. Pribilegio bat da azkenean.

Alde horretatik, funtsezkoa da **behar bezalako beka-sistema** baterantz aurrera egitea eta behar bezala ordaindutako praktika-sistema bat ziurtatzea, ardurak zein ikaskuntza-helburuak betetzeko aukera egon dadin. Ez da ahaztu behar irakaskuntza-eredua gero eta zorrotzagoa dela, eta, ondorioz, bertan egotea zaildu egiten da hala zaintza-ardurak dituzten ikasleen kasuan, nola ikasten soilik aritzeko behar bezalako egoera ekonomikoa ez duten ikasleen artean.

Horrekin guztiarekin, ezinbestekoa da **unibertsitate** publikoaren eredua defendatu eta indartzea, baliabideak emanez eta logika pribatizatzaileen erasoetatik babestuz.




Unibertsitatean irisgarritasuna bermatzea

Pertsona guztiek izan behar dute aukera unibertsitatea osatzen duten espazioetan mugitzeko eta haiei probetxua ateratzeko. Beraz, funtsezkoa da espazio horiek **irisgarriak** izatea. Mugikortasun fisikoa, zeinu-hizkuntza, itsuei egokitutako seinaleak, neurodibergentziarekiko arreta eta malgutasuna, etab. Badakigu behar posibleen heterogeneotasun handia dagoela eta ezin ditugula denak aurreikusi, baina, nolanahi ere, behar horiek hauteman eta jorratzeko espazioak sortu behar ditugu, irtenbide azkarrak emateko.

Espazio eta azpiegitura inklusiboak sustatzea

Unibertsitateko joan-etorriek pertsona guztien ongizatea bermatu behar dute, eta, hori horrela izanik, espazioen diseinuak edota altzariak funtsezko zeregina dute **azpiegiturak inklusiboak** izan daitezen (komun ez-binarioak, janari beganoa jantokietan, hizkuntzak, ezkerak direnentzako altzariak, tamaina guztietako aulkiak, etab.). Bestalde, ezin dugu ahaztu era askotako beharrak dituzten gorputzak garela, eta unibertsitateko espazioak (finkoak nahiz puntualak) planifikatzen direnean kontuan izan behar da zaurgarritasun material hori (hilekoa, neurodibergentziak edo mugikortasunak).

**Eta nik zer
egin dezaket
ekitatearen
engranajea
aktibatzeko?**



Errektoretzako kide bazara:

- Sustatu unibertsitatea osatzen duten campusen irisgarritasunaren ebaluazioa, espazio guztiak kontuan hartuta (ikasgelak eta korridoreak, baina baita kafetegiak, kiroldegia edota liburutegia ere). Pertsona guztiek mugitzeko eta probetxua ateratzeko aukera izatea da helburua.
- Jarri eta zabaldu desgaitasun-egoerei erantzuteko baliabideak. Komunikazioa funtsezkoa da jakiteko baliabide horiek eskuragarri daudela behar dituzten pertsonentzat, eta egokitu daitezkeela!
- Presioa egin bekak handitzeko.
- Bermatu espazio kolektiboak irekitzea (liburutegiak, jantokiak, laborategiak, ordenagailu-gelak...), eta izan baliabide-zentro bat, baliabide horiek ikasleen eskura jartzeko.
- Babestu zaintza-lekuak, haurtzaindegia adibidez, funtsezko baliabide bat baitira seme-alabak dituztenek kontziliazioa egin ahal izan dezaten.
- Bultzatu ikastetxeekiko harremanak, batez ere auzo pobreenetan daudenekin, unibertsitatean prestatzeko aukerei buruz ilusioa sortzeko (ez hainbeste lan-aukerekina eta produktibismoarekin lotuta, baizik eta esperientziak eta ikaskuntzak aberasteko espazio moduan).
- Sustatu irakaskuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko sentikorra izateko protokoloak eta/edo prozedurak, betiere modu parte-hartzailean eta, bereziki, eragindako pertsonen begiradak kontuan izanik.

Irakaslea bazara:


- Prestatu zeure burua irakaskuntza irisgarrian, era askotako ahalmenei erantzuten saiatzeko.
- Zabaldu zure ikasketa-eremuaren eta ematen dituzun irakasgaien aniztasuna.
- Jarri harremanetan auzoetako kolektibo eta erakundeekin, unibertsitatearen eskaintzak eta aukerak aurkezteko.
- Saiatu zure ikasleek alferrikako gasturik egin ez dezaten (apunteen, materialen eta abarren bidez parteka ditzakezun liburuak, lizentziak).

Ikaslea bazara:

- Errespetatu aniztasun funtzionala eta lagundu diskriminaziorik edo irisgarritasun faltarik egon ez dadin.
- Presioa egin irisgarritasun-baldintzak bete daitezen.
- Babestu eta parte hartu desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko kolektiboetan, unibertsitatean eta handik kanpo.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Aldarrikatu unibertsitatea emantzipaziorako, jakintza-trukerako eta pentsamendua eratzeko gune moduan.
- Sustatu antikapazitismoarekiko sentsibilizazioa.
- Jarduera bat antolatzen duzunean, kontuan izan irisgarritasuna, hizlarien eta parte-hartzaileen beharrak asetzeko.



Beste **eragileren bat** lanean jarri behar al dugu engranaje hau aktibatzeko? Egia esan, bai. Azpiegiturak egokitzeko, baliabide asko behar dira, eta, hortaz, beste erakunde **batzuek** ere parte hartu behar dute haien horniduran. Bereziki, goi-mailako administrazioek (autonomia-erkidegoetako gobernuek, ministerioek) unibertsitate-politikak sustatu behar dituzte, pertsona guztiek aukera izan dezaten goi-mailako hezkuntzan sartzeko (doakotasuna, bekak, etab.) eta bertan jarraitzeko.

Bestalde, garrantzitsua da unibertsitatearekiko interesa sustatzea adin goiztiarragoetan; beraz, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ekitatea bultzatu behar da, eta eskola uztearen egiturazko arrazoiei heldu behar zaie, batez ere sartzeko aukera txikiagoa duten komunitateetan. Eta zergatik ez? Adinekoen eta helduen sarbidearen eta gozamenaren alde egin, goi-mailako hezkuntzaz gozatu ahal izan dezaten egoera pertsonala egokia denean.

Azkenik, ezin ditugu ahaztu atzerriko pertsonen tituluak homologatzeko prozesuak arintzeko eta azkartzeko ministerio-eskumenak, kaltetuek urteak ematen baitituzte beren prestakuntza aintzatesteko zain.



Ikerketa eta ekintza

Ikerketa gorpuztu eta arduratsua sustatzen duen unibertsitatea

Ikerketa unibertsitatearen funtsezko oinarrietako bat da; izan ere, haren bidez, gizarte-errealitatearen interpretazioan sakontzen da, tresnak eta proiektuak esploratzen dira, eta ingurunean eragiten duten produktuak egiten dira, nahiz imajinarioan eta politika publikoetan edo gailu materialetan eraginez. Tradizioz, **begirada eurozentrikoaren ezagutza objektibo eta inpartzialaren falaziaren** gainean eraiki da zientzia, neutraltasun-fantasia horren barruan, ezkutuan duen gauza bakarra hegemoniarekiko leialtasuna izanik.

Neutraltasun falta hori agerian gelditzen da zenbait ikerketatan, ongizate orokorra hazkunde mugagabearekin lotzen baitute edo krisi ekologikoari irtenbide teknologikoak ematen baitizkiote. Aitzitik, epistemologia feministak agerian jarri du **jakintzak sortzea prozesu historikoetan kokatuta dagoela eta gorpuztuta dagoela**. Hau da, testuinguruaren arabera jarduten duten botere-harremanetan moldatuta dago, eta jakintza horiek zehazten eta igortzen dituztenen subjektibotasun eta gorputzek baldintzatzen dute. Horrenbestez, ikerketa ez da tresna neutral bat, baizik eta funtsezko zeregina du ingurunearen interpretazioan, eta, beraz, gizarte-eraldaketarekiko erantzukizun- eta konpromiso-printzipioen arabera funtzionatu behar du.

Ikerketa-begirada desunibertsalizatzea eta mendekoa zentralizatzea

Orrialde hauetan asko hitz egin da modernitateko subjektu hegemonikoaz (badakizu, BBVA+ hori, zuria, burgesa, gizonezkoa, heldua, etab.), pribilegioari lotutako bere ezaugarrietatik araua zehazten duena eta, horrekin batera, baita unibertsaltzat jotzen dena ere. Bestela esanda, hiriak, enpresak, politika publikoak eta, jakina, unibertsitatea eta halako beste erakunde batzuk oso minoritarioa den kolektibo horren nahi, interes eta beharren arabera zehazten dira. Kolektibo horren botere-posizioa dela eta, begirada neutraltzat jotzen da haiena.

Ikerketan ere ikusten da patroia hori. Hala, pribilegio-ardatzetatik urruntzen garen heinean, ikuspegiak, lokalizazioak, metodologiak eta gaiak **partikularizat jotzen dira, eta, ondorioz, subjektibotzat**, inolako interes orokorrik gabeak. Ondorioak asko dira: ikusezintasuna; finantza eta lortzeko edo argitaratzeko zailtasunak; deslegitimazioa kongresu akademikoetan, aukera gutxiago merezimenduen aintzatespena lortzeko eta kontratazio-prozesuetan sartzeko, eta abar luze bat, eta horrek eragina du, handia gainera, karrera akademikoarekin lotutako itzaropenean.

Menderatzailearen eta mendekoaren arteko eredu hierarkizatu horren aurrean, begirada zabaltzearen eta **ikerketa bazterretatik esploratzearen** alde egiten dugu, adiera bakarreko irtenbideak (eta faltsuki unibertsalak) jasotzen dituen errealitatearen interpretazio objektibo (faltsu) hori zalantzan jarritz. Hori egin ahal izateko, ordea, funtsezkoa da aintzatespen material eta sinbolikoko baldintzak bermatzea, bestela unibertsitatearen gorpil hegemonikoa indartzen jarraituko baitugu.

Mendebaldeko ezagutzaren paradigma zalantzan jartzea

Zientzia hegemonikoa objektibotasun- eta arrazionaltasun-falazia baten gainean eraiki da. Hartan, subjektu ikertzaileak gai bat aztertzen du, eta haren begirada ez du ezerk baldintzatzen, ez munduan duen posizioak, ez bere ideologiak. Dominazioa bereizgarri duen munduari begiratzeko modu horren aurrean, ikerketa-prozesu ororen atzean dauden **subjektibotasunak agerian jartzea** proposatzen dugu, aurkako aldearen subjektu moduan aintzatespena jasotzeaz gain.

Metodologiaren konbinazioa eta dibertsifikazioa sustatzea


Ikerketa objektibo eta neutroa goresteak berekin ekarri du zientzia positibistaren legitimazioa, ia eskusiboa, eta kuantitatiboa jo da metodo fidagarri bakartzat. Orrialde hauetan bi gauzataraz gonbidatzen zaitugu: alde batetik, **kuantitatiboaren neutraltasuna desmitifikatzea**, eta, bestetik, ahal dela **metodoak ez hierarkizatzea** eta haiek modu osagarrian erabiltzea, ikerketaren beharren arabera. Mundu oso bat dago esploratzeko: ikuspegi kualitatibo, narratibo eta etnografikoak; hainbat teknika, hala nola esperientziaren erliebe-mapak (relief-maps) edota gorputza-lurraldea metodologia.

Baina **adi estraktibismoarekin** eta ezagutzen jatorria ikusezin bihurtzearekin! Eskura dugun tresna-saski osoaz gozatzearen alde egiten dugu hemen, baina betiere jakintza ez-eurozentrikoak aintzatetsiz eta zapaldutako taldeen metodoak eta ezagutzak gaitasun kritikoak hustu daitezela saiaturaz.



Ikerketa eta ekintza parte-hartzaileko prozesuak bultzatzea (ikuspegi feministarekin)

Ingurunearekiko konpromisoarekin zuzenean lotuta, Ikerketa eta ekintza parte-hartzailea (IEP) ikuspegi feministatik sustatzeko aukera sortzen da, inplikaturako eragileetatik bertatik hausnarketa eta ekintza bateratzeko aukera ematen duen ikuspegi moduan, eta beren errealitateak aztertzeko eta eraldatzeko subjektu gisa aintzatetsita. Hemen, **ikuspegi feminista intersektionala** txertatzearen garrantzia azpimarratzen dugu berriz; izan ere, gizarte-eraldaketari lotutako ikuspegia izan arren, botere-harremanak errepikatzeko arriskua dauka. Hori dela eta, begirada osatu horri esker, espazio zaindu eta seguruak eraiki ditzakegu, haiek guztiak bermatuta: ahots guztien presentzia eta legimititatea; entzute aktiboa eta elkarriketa, eta parte-hartzaile guztien enpatia eta eraikuntza kolektiboa. Horrek garrantzi berezia du ikerketa-ekosistema horizontalak sortu nahi baditugu, jakintza eta ezagutza-modu guztiak aintzatetsiak eta balioetsiak izango direlarik.



Eta zer egin dezaket nik **ikerketaren** eta **ekintzaren engranajea** aktibatzeko?

Maila desberdinean eta ekintza desberdinak eginez, errektoretzak, irakasleek eta ikasleek erantzukizun handia dute ikerketa konprometitu eta arduratsua garatzeko orduan. Zer ekintza jar ditzakegu abian?

Errektoretzako kide bazara:

- Bultzatu aldaketak merezimenduen aintzatespenean.
- Sustatu eta babestu pertsonen eta lurraldeen ongizatearen alde egiten duen ikerketa aplikatua.


Irakaslea edota **ikaslea** bazara, ikerketa bultzatzear:

- Kontuz estraktibismoarekin! Ezagutu eta agerian jarri beti iturriak, eskertu komunitateen parte-hartzea eta, ahal duzun neurrian, egin itzulketa bat emaitzekin.
- Zalantzan jarri eta berrikusi zure posizioa ikuspegi intersektzionaletik.
- Esploratu metodologia alternatiboak, parte-hartzaileak, herrikoiak eta/edo kultura komunitarioarenak.
- Arriskatu eta hurbildu tradizioz bazterretakoak izan diren jakintza eta gaietara, akademikotzat jotzen denetik urruntzen diren herri, auzo, pertsona edota kolektiboen ezagutzari balioa emanez.

- Bilatu laguntza zaintza feministako sareetan. Mendekoa denetik ikertzeak deslegitimazio-modu asko dakartza posizio hegemonikoetatik: balio-galerak, partikularizazioak, ikusezintasunak eta abar, eta mina, frustrazioa eta indarkeria sinbolikoa eragiten dute. Beraz, gauza bat gogoratu behar da hemen: elkarrekin eta antolatuta gaitasun handiagoa dugu geure burua aldarrikatzeko eta aintzatesteko.
- Bultzatu IEP-prozesuak ikuspegi feministarekin. Gogoan izan metodologia parte-hartzaile bat martxan jartzen baduzu funtsezkoa dela itzulketa, zurekin partekatu dituzten ezagutza eta informazioa bueltan emateko tresna moduan.
- Bultzatu akademian egiten diren hausnarketak zabaltzeko espazioak, eta bilatu zure proiektuak komunitatean dauden beharrekin lotzeko moduak.
- Sustatu GALak eta MALak gizarte-aldaketaren zerbitzura dauden tresnak izatea. Curriculumak agintzen du horiek egiteko, baina beste errealitate, erreferentzialitate edo esperientzia batzuetan sakontzeko tresnak ere izan daitezke.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Lagundu gizarte- eta ingurumen-justiziara bideratutako ikerketa-prozesuetan.
- Esploratu gizartearen eta akademiaren arteko ikerketa-ekosistemak indartzeko estrategiak.
- Inplikatu unibertsitateko eragileak zure azterketa eta ikerketetan.





Parte-hartzea

Kide dituen pertsonen inplikazioa sustatzen duen unibertsitatea

Hierarkia eta bertikaltasuna eredu emantzipatzaile baten garapena mugatzen duen unibertsitate-ereduaren ezaugarri bihurtu dira; izan ere, behetik gorako ekimenekiko oso iragazkorra ez den sare elitista bat (burokrazian babestua) dago aldaketen bilaketari aurre egiten. Bestalde, goi-mailako hezkuntzaren organigrama konplexuak **egitura horizontalak zailtzen ditu**, eta horiek ere konplexuak dira era berean, eragileen artean dauden botere-posizio bereziengatik. Dena den, posible da unibertsitatea partaidetza-espazio moduan sustatzea, egitura eta hierarkia nahasi gabe, eta bere irakaskuntza- eta ikasle-oinarrietatik eta osatzen duten komunitateetatik pixkanaka urruntzeko joera utzita.

Nola egingo dugu?

Zeharkakotasuna eta transdiziplinatasuna bultzatzea

Zeharkakotasuna. Unibertsitatearen funtzionamenduak oso bereizketa estankoak sustatzen ditu, batzuetan **lehiakorrak** izan daitezkeen logikekin, sailen, ikerketa-taldeen edo diziplinen artean. Bizitzaren jasagarritasuna oinarri hartuta eratuko den eta sistema biozida honek eragindako alertei erantzungo dien unibertsitatea sustatu nahi badugu, ezin dugu proposamen isolatuen bidez erantzun, baizik eta eragiten diguten arazoan **multidimentsionalitateari erantzungo dioten indarrak batu** behar ditugu.

Parte-hartzea indartzea, eragileen arteko engranaje moduan

Gehienetan, unibertsitate-komunitatea osatzen duten eragileek satellite isolatu moduan jarduten dute, bai elkarren artean, bai beren baitan. Beste unibertsitate-eredu bat bultzatu nahi badugu, funtsezkoa da **elkartzeko guneak sustatzea eta indartzea, elkarriketa eta aintzatespena eragiteko** elkarren artean. Horri dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu aliantzak egitea irakasleen eta hegemoniaren aurka dauden ikasle feministen artean, unibertsitate-sarean duten botere bereizgarria ahaztu gabe. Estrategia hau itxi aurretik, aipatu nahi dugu parte-hartzeak izan behar duela, halaber, unibertsitatearen eta tokiko komunitateen arteko harremanaren engranajea, eta bataren zein besteen presentzia bultzatu behar dela bi aldeetako espazio kolektiboetan.




Gobernu-organoen osaera eta funtzionamendua birpentsatzea

Unibertsitatea zenbait gobernu-organotan dago egituratuta, eta unibertsitatearen funtzionamenduan parte hartzen duten alderdi guztien interesak biltzea dute helburu (baina ez dute beti lortzen). Gailurrean errektoretza dago, gobernu akademiko eta administratiboaren arduradun. Baina fakultateak eta eskolak ere hor daude, baita Saileko Kontseiluak, batzorde espezifikoak edo Ikasle Kontseilua ere. Horri dagokionez, funtzionamendua erabat hierarkikoa da, **eta ikasleek oso pisu txikia dute unibertsitate-politiketan.**

Gainera, unibertsitatearen organigraman gora egin ahala, emakumeak desagertzen doaz zuzendaritza-karguetatik: errektoreen % 25 baino ez dira emakumeak, ehuneko txikia, kontuan izanik irakasleen % 44 eta ikasleen % 50 baino gehiago direla, "Espainiako Unibertsitatea zifratu" txostenaren arabera. Ikuspegi intersektzionala aplikatzen badugu, unibertsitate-karreran gora egiten duten profilen normatibotasuna hazi egiten da, eta oso gutxi dira funtzionaltasun ez-normatiboko pertsonak, langile-klasekoak, disidenteak, migratzaileak, arrazializatuak eta mendeko beste kolektibo batzuetakoak.

Eta zer egin dezaket nik parte-hartzearen engranajea aktibatzeko?



Eragile guztiak inplikaturik daude, beharrezkoa delako denak aktibatu eta inplikatzeko unibertsitate-eredu berri bat bultzatzeko. Horri dagokionez, ñabardura bat egin daiteke. Pertsona guztiei eragile-izaera aintzatesteak ez du esan nahi denak erraztasun beraz aktibatuko direnik, boterea ez baitago berdin banatuta. Hala ere, parte-hartzearen ahalmen eraldatzailetik abiatuta, unibertsitate-komunitate aktibo baten eraikuntza imajinatzen dugu, aldaketaren palankak mugitzeko zuzeneko bultzatzaile eta subjektu moduan aintzatetsia. Hori esanda, zer egin dezake eragile bakoitzak?

Errektoretzako kide bazara:

- Eraiki diziplinarteko lan koordinatua bultzatuko duten egiturak (sailarteko mahaiak proiektu partekatuetarako, gaiei buruzko zeharkako ikerketa-taldeak, etab.).
- Sustatu unibertsitatean eragile guztiak bilduko dituzten gobernantza-egiturak, eta benetako proposamen-ahalmena izan dezatela. Era berean, bilatu haien artean boterea birbanatzea, inplikatzera anima daitezen, AZLren eta ikasleen pisuari begiratuta bereziki.
- Proposatu AZLk osatutako unibertsitate-organo bat sortzea, unibertsitate-politiketan eragiteko aukera izan dezan, ahal den neurrian.

Irakasle bazara:

- Sustatu fakultateen eta sailen arteko proiektuak, krisi multidimentsionalari erantzunak emateko.
- Inplikatu diziplinarteko sareetan, egungo beharrei modu konplexuan erantzuteko gai izango diren proiektuak eraikitzeo, arlo teknikoa ikuspegi kritikoekin konbinatuz.

Ikaslea bazara:

- Hurbildu eta inplikatu sindikatuetan eta ikasle-elkarteetan. Batasunari esker, ahotsak modu isolatuan baino ozenago entzuten dira.

AZL bazara:

- Bultzatu barne-bizigarritasuneko prozesuak, norberaren eta besteen ongizateari eragiten dioten eskaerei heltzeko elkarriketa-espazioen eraikuntzan presioa eginez.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Parte hartu unibertsitatearekiko elkarriketa-organoetan, eta aldarrikatu han zaudela eta zure ahotsa entzun egin behar dela!
- Zabaldu antolamendu-kulturaren beste eredu batzuk, bizigarriagoak, bai eta espazio atsegin, zaindu eta seguruak sortzeko erabiltzen dituzuen metodologiak eta tresnak ere.
- Zalantzan jarri zure antolamendu edo mugimendua, botere-harremanen bat errepikatzen ari al den hautemateko. Identifikatzen dituzunean, partekatu zure hausnarketak, elkarrekin eraikitzen jarraitu ahal izateko.





Lan-politika

Lan-politika bidezkoa eta zaintzekiko sentikorra ziurtatzen duen unibertsitatea

Unibertsitate-inguruneko lan-harremanen kudeaketa funtsezko engranajeetako bat da beste unibertsitate-eredu bat eraikitzeko. Zoritxarrez, **prekarietatea** gaur egungo unibertsitatearen ezaugarrietako bat bihurtu da. Prekarizazio hori areagotu egiten da BBVA+ horren profil hegemonikotik urruntzen garen heinean, eta honako hauen bidez hautematen da: sarbide zaila funtzionaltasun ez-normatiboko profilentzat; aniztasun txikia langileen artean, arrazializazioari, jatorriari edo gizarte-klaseari dagokienez, edo gero eta genero-arrakala handiagoa organigraman gora egin ahala.

Hau da, berdintasunik ezak zeharkatzen du goi-mailako hezkuntza, eta hori ezin zitekeen beste era batera izan, dominazioan moldatuta dagoela kontuan izanik. Beraz, funtsezkoa da **lan-baldintza bidezko eta feministak** sustatzea, modu ekitatiboan langileak lanean hastea eta bertan jarraitzea ziurtatuko dutenak, eta enplegu duinak bultzatzea, zaintza-ardurei dagokienez. Horrek ez die langile akademikoei soilik eragiten, baita administrazioko eta zerbitzuetako langileei ere, harreman-lotura bat duten eta/edo prestazio

Kontratazio-irizpideak eta karrera akademikoaren merezimenduak berrikustea

Unibertsitatearen merkantilizazioak zerikusi handia du ibilbide akademikoa bultzatzen duten merezimenduetan. Eta hala, hauek dira ebaluazio- eta egiaztapen-sistema zeharkatzen duten elementuak: indibidualismoa, lehiakortasuna, produktibitatea, ezagutzaren estandarizazioa, despolitizazioa, eta jarrera kritiko eta transdiziplinarren penalizazioa. Dinamika horiek **akademiko txanpiñoi** deitzen diogunarekin lotutako profil baten gehiegizko presentzia dakarte, Amaia Pérez Orozco-ren kontzeptua luzatuz, enpresarentzat beti eskuragarri dauden eta norberaren zein besteen zaintza-erantzukizunik ez duten langile horiek aipatzen dituenen. Horregatik, ibilbide akademiko kooperatiboagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa, osasungarriagoa eta (auto)zaintzekiko sentikorragoa sustatu nahi badugu, funtsezkoa da langile akademikoaren egiaztapen- eta kontratazio-prozesuak berrikustea.



Lan-baldintza bidezko eta ekitatiboak ziurtatzea


Tamalez, prekaritatea da gaur egungo unibertsitatearen ezaugarrietako bat, eta horrekin batera datoz pertsona ez-normatiboen sarbidea errazten ez duten kontratazio-prozesuak. Egia bada ere unibertsitatearen organigraman lanpostu pribilegiatuak aurkitzen ditugula, funtsezkoa da egon daitezkeen **bereizketa bertikal eta horizontalak** genero-ikuspegi intersektional batetik aztertzea. Lan-baldintza duinak bermatzeko, zaintza-politikak ezarri eta errespetatu behar dira: haurtzaindegiak sortu, mendekotasun handiak dituzten pertsonak artatzen dituztenei lagundu edo lanaldiak egokitu eta murriztu. Adi! Zaintzak ez dira mugatzen familia-eredu nuklear zisheteropatriarkaletara.

Unibertsitateko langileez arigarenean, irakasle eta ikertzaileez ez ezik, unibertsitatearen azpiegiturak sostengatzen dituzten eta egunerokotasunaren jarraipena bermatzen duten pertsona guztiez ari gara, askotan modu ikusezinean jarduten badute ere. Administrazioako, laguntzako, mantentze-lanetako edo garbiketako langileez ari gara. Azken sektore horrek unibertsitateak egiten dituen kanpora-ateratzeak berrikustera garamatza, erakundeak lan-baldintza bidezko eta ekitatiboak ziurtatu behar baititu bere langileen artean ez ezik, baita zerbitzuak azpikontratatzeko baliatzen dituen entitate, enpresa edo erakundeetan ere.

Ingurune irisgarriak bermatzea funtzionaltasun ez-normatiboko langileei

Goi-mailako hezkuntza da desgaitasuna duten pertsona gutxien dauden lan-inguruneetako bat. Zehazki, unibertsitate publikoetako irakasle- eta ikertzaile-langile guztien % 0,6 dira. Desgaitasuna duten irakasle- eta ikertzaile-langileen egoera Espainiako unibertsitate-sisteman (2022) txostenaren arabera. Ikasle-kopurua % 1,5 da, baina behera egiten du pixkanaka, titulazioen eskalan gora egin ahala. Eta irakasle- eta ikertzaile-langileen taldekoa izateak ez ditu datuak asko aldatzen, unibertsitate-ingurunean funtzionaltasun ez-normatiboak duen pisuari dagokionez. Hala dio Desgaitasunaren Behatokiak.

Baina ez da zenbaki-kontua soilik, baizik eta benetan inklusiboa izango den unibertsitate bat eraikitzea da helburua, eta desgaitasuna duten pertsonei aurkako ingurune batek sortzen dizkien minak eta ondoreak konpentsatzea, desgaitasun horiek edozein motatakoak izanda ere. Askotan aipatu ditugu hiperproduktibitateak, lanaren etikak eta goi-mailako hezkuntza moldatzen duen lehiakortasunak sortutako estresa eta sosegurik eza, eta hori areagotu egiten da normatibotasun funtzionalaren estandarrak betetzen ez dituzten pertsonen artean. Kapitulu hau irakurtzera animatzen zaitugu: “Desgaitasuna duen irakaslea izatea unibertsitate publiko batean: Nire testuinguru estatistiko eta pertsonaletik egindako hausnarketak”, Irene Raya Bravo-k idatzia, oztupo horietako batzuen berri izan dezazun.



Eta zer egin dezaket nik lan-politikaren engranajea aktibatzeko?



Unibertsitatearen kudeatzailea den aldetik, errektoretza da engranaje honetako funtsezko eragile bultzatzailea.

- Sustatu beste merezimendu batzuk aintzatestea.
- Bultatu diagnostiko bat, jakiteko zer profil dauden unibertsitateko posizio prekarizatu eta ezegonkorrenetan.
- Noizbait galdetu al diozue zeuen buruari zer aniztasun-indize dagoen unibertsitatea osatzen duten irakasleen artean? Irakasleen profilen diagnostiko bat sustatzen bada, ziur asko homogeneotasuna aurkituko duzue zenbait gizarte-markatzailetan, hala nola ahalmenak, klasea, generoa, jatorria edo arrazializazioa.
- Sustatu kanpora ateratzea ekonomia sozial eta solidarioko erakundeetan, nahiz garbiketaz-erbitzuetarako, hornigaiak erosteko edo azterlan bat egiteko.
- Lan-kontuetan, nagusi moduan jokatzeko duzue nolabait, eta, beraz, eskaini eskaerak bideratzeko espazioak, eta ziurtatu entzute aktiboa egingo zaiela sustatzen diren mobilizazioei.

Irakaslea bazara:

- Antolatu zeure burua, izena eman sindikatu batean eta mobilizatu ibilbide akademikoaren hiperproduktibitatearen aurrean eta presionatzeko eta bidegabekeriak agerian jartzeko.
- Logika lehiakor, indibidualista eta produktibistek ez dezatela zure ibilbide akademikoa gidatu.
- Parte hartu modu aktiboan erabakiak hartzeko espazioetan, eta eskatu kolektibo guztien lan- eta soldata-baldintzak hobetzeko.
- Agerian jarri bidegabekeriak.
- Sortu zaintzeko eta elkarri laguntzeko sareak.

Ikaslea bazara:

- Ohartu unibertsitatea oso prekarizatuta dagoela, eta, horrenbestez, babestu irakasleek egiten dituzten aldarrikapenak (greba egiten dutenean, adibidez), beren irakaslana baldintza duinetan garatu ahal izan dezaten.

Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Ez ulertu arrotz moduan unibertsitatearen eremuan gertatzen dena. Lan-baldintza duin eta nahikoak dituzten langileez osatutako hezkuntza-erakunde bat izatea garrantzitsua da lurralde osoarentzat.

Beste **eragileren bat** lanean jarri behar al dugu engranaje hau aktibatzen? Berriz ere, bai, unibertsitateko aldaketek **beste erakunde-maila batzuen** laguntza eskatzen baitute, batez ere goi-mailako hezkuntzaz arduratzen den ministerioarena, erregulazio- eta arau-esparruak sortzeko ahalmena baitu. Horri dagokionez, honako hauekin lotutako ekintzak garatu ditzakete:

- Unibertsitateentzako finantzaketa, pertsona guztientzako lan-baldintza duinen bermeak baldintzatuta. Edo, gutxienez, lan-politika feminista batera bideratutako jardunbideak sustatzen dituztenak bultzatzea.
- Unibertsitateak garatzen dituen lan-politiken jarraipena eta kontrola (auditoretza, ikuskapena, etab.).
- Espainiako unibertsitateak osatzen dituzten pertsonen egoerari buruzko argitalpen eta azterlanak bultzatzea, ikuspegi intersektionaletik.

Dena den, edozein motatako eragilea zarela ere, ez espero gauzak aztikeriaz gertatuko direnik! Antolatu zeure burua, parte hartu mobilizazioetan, eta sartu beharrezko eraldaketak bultzatzeko eta presioa egiteko sareetan. Eta ahal baduzu, izena eman sindikatu batean! Izan ere, aldaketak borroka kolektibotik sustatzen dira, baita unibertsitatean ere.



Jasangarritasun ekologikoa

Ingurumenaren eta ekologiaren justizia bultzatzen duen unibertsitatea

Giza existentzia arriskuan dagoela iragartzeko bide ematen diguten larrialdietako bat krisi ekologikoa da. **Testuinguru ekozida** batean bizi gara, gure ekomendekotasunari bizkarra emanda. Inguruneak birsortzeko duen ahalmenetik oso gora kontsumitzen dute herrialde aberastuek, eta beste herri batzuen baliabideak espoliatzen dituzte. Harrapari-eredu horren aurrean, nahitaezkoa da naturaren zaintzarekin eta ekologiaren justiziarekin lotutako ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu alternatiboak sustatzea. Nola sustatu dezakegu unibertsitate ekologista bat?

Begirada ekofeminista diziplina guztietan sartzea zeharka

Krisi ekologiko larriak unibertsitatea behartzen du begirada transdiziplinar bat oinarri hartuta irtenbideak antolatu eta eskaintzera. Biodibertsitateari edo justizia energetikoari buruzko azterlanak; agroekologiari buruzkoak; lurra eskuratzeko orduan dauden genero-desberdintasunak; erabakiak hartzea eta herri-kudeaketa; ekoizpenean eta kontsumoan dauden logika kolonial eta arrazistak, eta behartutako migrazio-desplazamenduak, beste askoren artean. Horiek guztiek erakusten dute oso garrantzitsua dela analisiak zeharka egitea nahiz hausnarketa-esparru eta jardunbide ekofeministen eta dekolonialen arabera irteerak imajinatzea. Zenbait proiektu, hala nola, EHUren **Campus Bizia Lab** aukera bat izan daitezke antolatzeko bai hainbat diziplinako jakintzak, bai lanean eta ekosistemak osatzen dituzten eragileak. Espazio horiek, eta UPMSn eman ziren **prestakuntza-pilulek** berdin, bide ematen dute hezkuntza ekosozial baterantz aurrera egiteko, metodologia horizontalen erabilera sustatzeko, eta ikuspegi iraunkor eta parte-hartzaileak txertatzeko.

Diskurtsoak antolatzea negazionismo klimatikoaren aurrean

Krisi ekologikoari buruz adostasun zientifikoa dagoen arren, azkenaldian jarrera negazionistak ugaritu dira, eta, aldi berean, oihartzuna eman zaie hedabideetan eta sare sozialetan. Egoera horren aurrean, unibertsitateak **erreferentzia zientifiko eta dibulgatzaile moduan aldarrikatu** behar du bere burua, diskurtso horiek desegitean. Eta, horretarako, garrantzitsua da eragina izan dezaketen komunikazio- eta informazio-formulak esploratzea, gogoan izanik jasangarritasunari ezin zaiola ikuspegi tekniko batetik soilik heldu, baizik eta ingurumen-justiziaren ikuspegi bat erantsi behar zaiola. Alde horretatik, ezinbestekoa da ezagutzaren ekoizpena gizarteari hurbilduko dioten herritarren zientzia-proiektuak sustatzea, komunitatea inplikatzeko datu-bilketan, tokiko arazoaren azterketan eta irtenbideen eraikuntza kolektiboan. Ikuspegi honek, zientzia demokratizatzeaz gain, herriaren konfiantza indartzen du diskurtso negazionisten aurrean, eta agerian jartzen da ezagutza zientifikoa tresna erabilgarri, hurbil eta eraldatzailea izan daitekeela guztion ongirako.


Eraikin, ekipamendu eta hornigai jasangarriak sustatzea

Erakunde gisa, unibertsitateak **bere dinamikak, jardunbideak eta balioak ikuspegi ekologista batetik birpentsatu** behar ditu. Horrek esan nahi du gauza asko sustatu behar direla, esaterako: erosketa publiko arduratsua; energia-efizientzia; sentsibilizazioa eta sustapena garraio publikoaren erabileran (eta, horretarako, existitu egin behar du, eta duintasunez!), bai eta motorizatu gabeko mugikortasun-moduetan ere, edo ekonomia zirkularra, baliabideak berrerabili, berreskuratu, konpondu edota partekatzeke.

Era berean, funtsezkoa da, halaber, beren espazioak eta azpiegiturak birpentsatzea. Izan ere, campus askotan ez dago berdegunerik, eta hormigoi hutsezko erraldoi moduan diseinatuta daude. Baratzeak, lorategiak edo zelaiak leku atseginak izan daitezke, eta aproposak unibertsitatearen azpiegiturak oxigenoz betetzeko. Jantokiak, berriz, janari elikagarri, zapoetsu eta hurbilekoak ziurtatuta dauden lekuak izan daitezke.

Horren ondorioz, jasangarritasun kontzeptua zabaltzeko beharra sortzen zaigu, ikerketaren gizarte-eraginak baloratuko dituzten adierazle akademikoak txertatzeko, eta, horrez gain, unibertsitate-curriculumean ikuspegi ekosozialak sartzeko, eskakizun akademikoak malgutuz eta ezagutza sortzeko beste modu batzuen balioa aintzatetsiz.

Irakasleen, diziplinen, ikasleen, unibertsitateen, elkarteen eta ikerketataldeen arteko lankidetzaren garrantzia ere azpimarratu nahi dugu, unibertsitatearen eremutik trantsizio ekosozial bidezkoa bultzatzeko estrategia giltzarri moduan.



Eta zer egin dezaket nik jasangarritasunaren engranajea aktibatzeko?

Unibertsitate-sistema osatzen duten eragile guztien ardura da ekologiaren justiziarekin bat datozen jardunbide jasangarriak sustatzea. Ekintza partekatu gisa, energia-efizientzia sustatzea proposatzen dugu: itzali argiak beharrezkoak ez badira, erabili plastiko eta paper gutxiago; erabili neurritz berogailua edo aire girotua, eta saiatu erabili eta botatzeko hornigaiak ez erabiltzen. Modu espezifikoan, beste neurri batzuk proposatzen ditugu.

Errektoretzako kide bazara:

- Promueve Sustatu Erosketa Publiko Arduratsua (EPA). Saiatu kontratu bidezko harremanik ez izaten naturari kalte egiten dioten enpresa kutsatzaileekin.
- Txertatu jasangarritasunaren ikuspegia egitura instituzional eta akademikoan.
- Indartu jasangarritasunerako hezkuntzarekiko konpromisoak.
- Murriztu ekoizpena eta hobetu hondakinen kudeaketa.
- Sustatu jasangarritasuneko edo ekonomia zirkularreko ikasgelak sortzea, unibertsitateko eragileak prestatzen laguntzeko.
- Sortu organoak, unibertsitatearen funtzionamenduaren jarraipena egiteko jasangarritasunaren ikuspegitik (ingurumen-batzordeak, behatokiak, etab.), eragileak tartean sartuta.
- Neurtu unibertsitateko ekintzen aztarna ekologikoa eta inpaktua.
- Sustatu jasangarritasunerako prestakuntza unibertsitateko langileen artean.

Irakaslea bazara:

- Aprobetxatu zure eskolak krisi ekologikoaz kontzientziatzeko.
- Erantsi begirada ekofeminista zure ikerketa-proiektuetan.
- Bultzatu ekonomia zirkularra barne hartzen duten proiektuetan oinarritutako ikaskuntzak.
- Ez eskatu erabili eta botatzeko materialak erosteko, eta saiatu ikasleen artean partekatzeko modukoak izan daitezen.
- Inplikatu eta sustatu unibertsitateko jardunbide jasangarriak baloratzeko ingurumen-batzordeak edo organoak egon daitezen.
- Bultzatu ikaskuntza- eta prestakuntza-prozesuak, kontzientziazio ekologistarako bide ematen duten erakunde eta espazioetan. Nahi izanez gero, animatu ikasleak zelaira irten daitezen edo ingurunea lehengoratzeko proiektuetan lagundu dezaten. Eta zuk ere egin dezakezu!
- Prestatu zeure burua jasangarritasunarekin lotutako gai eta ikuspegietan.

Ikaslea bazara:

- Partekatu materialak eta, ahal den neurrian, saiatu baliabideak berrerabiltzen.
- Erabili garraio publikoa, ahal den neurrian. Ezin baduzu, bilatu zure ingurumen-inpaktua murrizteko formulak, hala nola bidaia partekatzea.
- Antolatu zeure burua krisi ekologikoaren aurrean. Klimaren aldeko mundu-mailako grebek (oihartzuna izan zuten EHU) larrialdi klimatikoa sartu zuten unibertsitateen agenda politikoan.
- Inplikatu unibertsitateko ingurumen-batzordeetan.
- Parte hartu proiektu ekologistetan, eta bilatu zure ingurunea hobetzen lagundu diezazuketen prestakuntza- eta eragin-espazioak. Ziur gaude zure lurraldean modu asko daudela biodibertsitatea defendatzen laguntzeko!

AZL bazara:

- Eskaera bat egin behar duzunean, gogoratu erakunde batzuek irizpide etiko eta ekologikoak oinarri hartuta ekoizten dutela.
- Prestatu zeure burua jasagarritasunean, ingurumenaren justizian edo ekonomia zirkularrean, zure zereginetan aplikatu ahal izateko.
- Parte hartu unibertsitateko ingurumen-batzordeetan.


Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Lagundu agerian jartzen biodibertsitatea gogoan izateko, balioesteko eta defendatzeko eredu komunitarioak.
- Sortu aukerak, beste lurralde batzuetako mundu-ikuskeretatik borrokatzen diren eta Lurra defendatzen duten pertsonak eta kolektiboak gonbidatzeko.
- Identifikatu ingurumenaren justiziarekin konprometituta dauden pertsonak. Eta deitu iezaiezu zuen jardueretarako!
- Erabili eta agerian jarri krisi ekologikoarekin lotuta dauden azterlanak eta ikerketa akademikoak. Eta, jakina, ikasi haiengandik.
- Inplikatu jasagarritasuneko ikasgeletan edo eskoletan, zeure burua ikuspegi ekologista batetik prestatzeko.



-
- Aprobetxatu unibertsitate-ingurunearen potentziala, krisi ekologikoaren aurrean mobilizazioak deitzeko.
 - Lankidetzan aritu unibertsitatearekin, natura zaintzeari buruzko sentsibilizazio-ekitaldiak bultzatzeko.
 - Parte hartu unibertsitatean dauden ingurumen-batzordeetan edo jarraipen-organoetan. Ez badaude, presioa egin unibertsitatea, erakunde moduan, lanean hasi dadin larrialdi klimatikoari aurre egiteko!

Beste **eragileren bat** lanean jarri behar al dugu engranaje hau aktibatzen? Berriz ere, erantzuna baiezkoa da. Krisi ekologikoak denoi eragiten digu, eta, beraz, **goragoko mailetan dauden erakundeek** garraio publikoa eta eraikuntza berdeak bermatu behar dituzte, eta gai ekologistak zeharka sartuko direla ere bai.





Samurtasun erradikala

Bizitzeko egokia eta segurua den espazio moduan eraikitzen den unibertsitatea

Bizi dugun eredu kapitalista zisheteropatriarkal, kolonial eta supremazista zuriak berezkoak dituen logiketan moldatuta dago unibertsitatea, hau da, autonomian, lehiakortasunean, hazkundean edota dominazioan. Horri dagokionez, sustatzen dituen azpiegiturak, edukiak, jardunbideak eta imajinarioak **zaurgarritasunari bizkarra emanaz eraiki dira**. Horren aurrean, samurtasun erradikala proposatzen dugu, unibertsitatean elkarrekiko zaintza esploratzeko funtsezko engranaje moduan, eta Dani D'Emilia eta Daniel B. Chávez-ek idatzitako manifestu biziaren oinarri gisa. Bertan, maitasuna eta kritika uztartzea aldarrikatzen dute; beste denborazkotasun bat eta beste espazialtasun bat eraikitzea; eta hauskortasuna ingurunea eraldatzeko potentzia moduan aintzatestea.

Horretarako, unibertsitateak gorputzei, emozioei eta sentimenduei arrotz zaien espazio bat izateari utzi behar dio, eta **afektu positiboak, elkarri laguntzea eta zaintzak** aldarrikatu behar ditu, beste ezagutza eta jakintza batzuetatik eraikitzeko tresna gisa. Era berean, indarkeriarik gabeko irakaskuntza- eta ikerketa-espazio bat sustatu behar du, eta, horretarako, zeharkatzen gaituzten egiturazko desparekotasunei heldu behar diegu. Eta, indibidualismoaren eta lehiakortasunaren aurrean, zaintza kolektiboan oinarritutako imajinario bat bultzatu behar dugu. Nola egin dezakegu?

Campusak indarkeriarik gabeko espazioak izango direla bermatzea

Gure inguruko unibertsitateetan, gero eta **sexu-jazarpen eta -abusu** gehiago salatzen dira, mugimendu feministaren aurrerapenei esker, nahiz eta oraindik ere isilean gordeta dauden gehienak. UniSAFEren azken txostenaren arabera (2022), unibertsitateko ikasleen eta langileen % 31k jasan dute sexu-jazarpenera beren ikastetxean, baina % 13k soilik jarri dute salaketa.

Eraso arrazistak, LGBTIQ+fobikoak edota zapalduetako edozein talderi zuzendutako erasoak ere gertatzen dira ikasgeletan, korridoreetan edota sailetan. Egia da unibertsitate gehienek badituztela jada prebentzioko eta jarduteko protokoloak, baina asmo onak izan arren, dokumentu formal batean gelditu ohi dira.


Bestalde, funtsezkoa da unibertsitateak bere irakaskuntza- eta ikerketa-jardunak, azpiegiturak, espazio birtualak, errepresentazioak edota hizkuntza **berrikustea**, aniztasuna aintzatesteko eta pertsonak zaintzen dituen espazio arretatsu moduan eratzeko.

Zaintza- eta autodefentsa-sareak bultzatzea

Askotan, erantzuna ez dugu erakundean bilatu behar. Aitzitik, autoantolatu egin behar dugu, eta espazio seguruak sortu. Ikasleen, AZLren eta irakasleen arteko **antolamendu feministak** bilatu daitezke, eta haietan oinarritu, esperientziak partekatu eta ondoezak politizatu. Eta sare horiek berak espazio bat izan daitezke indarkeria matxisten, LGBATIQ+fobikoen, arrazisten edota kapazitisten aurrean autodefentsa sustatzeko. Eraso bakar bat ere ez erantzunik gabe!

Antimilitarismoa sustatzea eta bakea printzipio moduan aldarrikatzea

Eskuin-muturraren goraldiaren eta baliabide naturalen agortzearen eskutik, belizismoaren eta militarizazioaren gorespena bizi dugu. Unibertsitateak jarrera hartu behar du **gerren eta genozidioen aurrean**.



Eta zer egin dezaket nik samurtasun erradikalaren engranajea aktibatzeko?

Lehenik eta behin, dei orokorra egin diezaiekegu **zis gizonezkoei**: Hautsi anaiarteko ituna! Ikaskideren bat norbait behartzen, jazartzen edo erasotzen ikusten baduzue, zalantzan jarri edo, gutxienez, ez babestu. Hori esanda, unibertsitate samur bat eraikitzea eragile guztien esku dago, baina indarkeria-iturri izan ohi direnen artean dago erantzukizun handiena.

Errektoretzako kide bazara:

- Sozializatu indarkeria-mota guztien aurkako protokoloak. Sustatu prestakuntza eta zabaltu edukiak.
- Sortu espazio seguruak, behartutako pertsonak beren esperientzia salatzen edo partekatzen ausartu daitezen.
- Baliatu unibertsitateak bozgorailu moduan ematen duen aukera, gerrak eta genozidioak salatzeko, Israel Palestinan egiten ari dena adibidez.
- Eten harremanak gerrak edota genozidioak babesten dituzten erakundeekin.

Irakaslea bazara:

- Ez legitimatu irainak eta indarkeriak ikasgelan (eta, jakina, ez izan zu jatorria).
- Izan dadila ikasgela (eta zure bulegoa) indarkeriarik gabeko espazio segurua.
- Sozializatu tratatu onean, afektu positiboetan eta zaintzetan oinarritutako imajinario bat.

Ikaslea bazara:

- Lagundu ikasgela leku eroso izateko baldintzak sortzen: isildu, asko hitz egiten duzula nabaritzen baduzu; ez iraindu, ez zapaldu ikasgelako beste pertsona batzuk; ez erabili klaxe kapazitistak, homofoboak, matxistak, arrazistak, etab., eta ez baliatu indarkeria.
- Sortu zeure burua seguru sentitzen duzun laguntza-taldeak, eta inplikatu halakoetan.


AZL bazara:

- Inplikatu protokoloei buruzko prestakuntzetan.
- Eraso- edo indarkeria-motaren bat ikusten baduzu, egin egokitze jotzen duzuna.



Gizarte-erakunde edo **-mugimendu** bateko kide bazara:

- Bultzatu zure inguruko unibertsitate-testuinguruan dauden indarkeriaren aurkako protokoloen dibulgazioa eta informazioa.
- Inplikatu indarkeriak gaitzesteko zure lurraldean antolatzen diren mobilizazio eta ekintzetan.
- Sustatu indarkeria-mota guztien aurkako sentsibilizazioa.
- Erabili maskulinitate ez-hegemonikoak erreferentzia moduan.
- Aztertu zure erakundean ontzat jotzen diren lidergo-, partaidetza- eta errepresentazio-ereduak: indarkeriarik gabeak al dira? Hala bada, zorionak! Partekatu zure esperientzia, beste espazio batzuek handik ikasteko aukera izan dezaten.
- Dominazioa ez da beti kanpoan gertatzen! Aztertu zure erakundea, eta proposatu antolamendu-kultura aldatzeko prozesu bati ekitea, espazio eroso, zaindu eta seguruak berma daitezten.





Muntatze-prozesuaren amaierako **oharra**

Orrialde hauek unibertsitate-eredu alternatibo bat osatzeko jarraibideak ematen dizkigute. Koska bat estutzeko premia duten azkoinetako batzuk hemen daude jasota, baina ziur dakigu beste asko hariztatu behar direla, eta identifikatuko ditugu muntatze-lana martxan jarri ahala. Hala bada, anima zaitetz, hasi lanean eta esploratu eraikuntza kolektiboko prozesu hau.





Zorionez, ez gara hutsetik hasi. Aitzitik, jada pieza asko daude muntatuta, akademiaren eta gizartearen artean zubiak sortzen aritu diren hainbat eta hainbat pertsona eta kolektibori esker. Eta, horrekin batera, unibertsitatea muntatzen ere jardun dute, ingurumen- eta gizarte-justiziarekin konprometituta egon dadin, lurraldean errotuta eta bokazio emantzipatzailea duten mugimendu eta erakundeei lotuta.

Beraz, ez dugu amaitu nahi jarraibideen eskuliburu hau imajinatzen eta gauzatzen lagundu duten pertsona eta kolektibo horiei guztiei eskerrak eman gabe, eta eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, erabiltzean eskuliburuaren aberasten lagunduko duten denei.



Muntatze lanerako tresnak eta baliabideak

Gida honetan jasotzen den jarraibideen eskuliburua pentsatzean, eremu honetan **Aradia Kooperatibak** garatzen dituen **beste prozesu batzuk** hartu dira kontuan:

- Martínez-García, Patricia; Aguado-Peláez, Delicia, eta Ahedo, Igor (2022): *Investigación-acción educativa para desvelar y superar desigualdades de género*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Eskuragarri, [hemen](#).
- Martínez-García, Patricia; Aguado-Peláez, Delicia; Güemes, Celicia, eta Ahedo, Igor (2023): *Cómo hacer un aula feminista*. Madril: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa (bilduma: La aventura de aprender). Eskuragarri, [hemen](#).
- Martínez-García, Patricia eta Aguado-Peláez, Delicia (2024): *Ekintza politikoko ezinegonak eraldatzea. Parte-hartze parekiderako estrategia feministak*. Bilbo: Aradia Editorial. Eskuragarri, [hemen](#).

Orrialde hauek ez dira modu isolatuan landu. Aldiz, **UPMS proiektuaren esparruan** egindako lan orokor guztiaren parte dira. Horrenbestez, era guztietako engranajeak nola muntatu eta jarraibideak nola bete sakondu nahi baduzu, baliabide eta material hauetara jotzea gomendatzen dizugu:

- Arnoso Martínez, Maitane eta Gastón Dapena, Alberto (2025) *Pedagogías críticas en tiempos de emergencia. Herramientas para educar, resistir y transformar*. Donostia: Emaus Gizarte Fundazioa.
- Arnoso Martínez, Maitane, Sara Sola Fernández, María (koor.) (2020): *Arrailan: Akademia-lan eraldatzaileak elaboratzeko gida*. Donostia: Emaus Gizarte Fundazioa eta UKS. Eskuragarri, [hemen](#).
- Arnoso Martínez, Maitane eta Gastón Dapena, Alberto (koordinatzaileak) (2022): *La universidad en un contexto de emergencias: (Re)pensando la calidad universitaria desde las luchas sociales*. Bilbo: Emaus Gizarte Fundazioa.
- Arnoso Martínez, Maitane; Gastón Dapena, Alberto, Márquez, Julián, eta Pérez Prat, Lucía (2023). *UPMS Euskal Herria 2022: Construyendo agendas compartidas*. Donostia: Emaus Gizarte Fundazioa.

-
- Gastón Dapena, Alberto (koor.) eta Márquez, Julián (erred.) (2022): *Hackeando la academia. Manual para "guisar" nuevas relaciones universidad-sociedad*. Bilbo: Emaus Gizarte Fundazioa eta EHU.
 - "Prestatu zaitez aldaketarako" prestakuntza-pilulen grabazioak, eskuragarri [Emaus Gizarte Fundazioaren Youtubeko kanalean](#), unibertsitateko eta akademiako eragileentzat, gai hauei buruz:

[Sistematizazio eraldatzailea gizarte-aldaketarako](#)
[Larrialdi klimatikoa](#)
[Ikerketa eta ekintza parte-hartzailea \(IEP\), ekintzan oinarritua](#)
[Unibertsitate eraldatzailea: nola sortu ikastalde feminista bat](#)
[Gizarte-diagnostiko parte-hartzailea: nola aplikatu gure prozesuetan, jardunbide emantzipatzaileetarako aurrera egiteko](#)

Azkenik, **tresna osagarrien kit** bat proposatu nahiko genuke, ikertzen jarraitzeko interesgarriak iruditzen zaizkigulako.

Feminismoei buruz:

- Ahmed, Sara (2022): *¡Denuncia! El activismo de la queja frente a la violencia institucional*. Caja Negra Editora.

Hizkuntza inklusiboari buruz:

- Fernández Casete, June: [Guía para el uso inclusivo del castellano](#). EHU eta Pikara Magazine. Eskuragarri, [hemen](#).
- Fernández Casete, June: [Euskararen erabilera inklusiboa](#). EHU eta Pikara Magazine. Eskuragarri, [hemen](#).

Antirrazismoari eta eskuin-muturraren goraldiari buruz:

- Mbomio Rubio, Lucía (2024). *Tierra de luz*. Ediciones B.
- Mbomio Rubio, Lucía. (2019). *Hija del camino*. Grijalbo.
- Mbomio Rubio, Lucía (2017). *Las que se atrevieron*. Ediciones B.
- Mbomio Rubio, Lucía. *Proyecto Afromayores*. Eskuragarri, [hemen](#).
- Ramos, Miquel (2022): *Antifascistas: así se combatió la extrema derecha en España desde los años 90*. Capitán Swing.

-
- Ramos, Miquel (2021): *De los neocón a los neonazis: la derecha radical en el Estado español*. Rosa Luxemburgo Fundazioa.
 - Ramos, Miquel: *Podcast Dios Patria Yunque*. Podium Podcast. Eskuragarri, hemen: <https://www.podiumpodcast.com/podcasts/dios-patria-yunque-podium-os/>.
 - Adichie, C. N. (2009). *El peligro de una historia única*. Random House.
 - Gerehou, Moha (2021): *Qué hace un negro como tú en un espacio como este*. Península.
 - SOS Racismo Madrid (2022). *Aprendiendo racismo. Racismo estructural en libros de texto*. Eskuragarri, hemen: <https://www.sosracismomadrid.es/informe-de-investigacion-aprendiendo-racismo-racismo-estructural-en-libros-de-texto/>.

Larrialdi klimatikoari buruz:

- Erasmus Educators for Sustainable Development eta EHU: [Campus Bizia Lab](#).
- Eusko Jaurlaritza eta EHU: [EKOPO](#) ikerketa taldea.
- EHU: Arkitekturaren bidez bizi-kalitatea hobetzeko ikerketa-taldea, Arkitektura Saila ([CAVIAR](#)).
- [Gazteak klimaren alde mugimendua](#).

Ekonomia sozial eta solidarioari buruz:

- Nazioarteko konferentzia: *Lurrगतiko borroka sozialak Latinoamerikan*. Azterketa historiko, konparatibo eta globala. Gizarte Ekonomia Solidario eta Herrikoia Behatokia, Peruko San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusia. Eskuragarri, hemen: <http://economysolidarias.unmsm.edu.pe/?q=eventos/conferencia-internacional-las-luchas-sociales-por-la-tierra-en-am-rica-latina-un-lis-hist>.
- Montoya Chanchis, Luis (2017): *¿Otras economías?: Experiencias económico-sociales y solidarias en el Perú*. Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua; San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusia. Eskuragarri, hemen: <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/359>
- Pérez Alva, Ela eta Gonzales, Adriana (2020): *Políticas públicas: Estrategias económico-alternativas y derechos económicos de las mujeres*. Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua; San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusia. Eskuragarri, hemen: <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/432>
- Dokumentala: *Historias de Café. Miradas a la Economía Solidaria en la Selva Central*. San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusia; Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua. Eskuragarri, hemen: https://www.youtube.com/watch?v=zHH_VkYIECo.

-
- Facebookeko taldea: Emakume Migratu Feministak – Cuidadoras Sociosanitarias. https://www.facebook.com/EmakumeMigratuFemistakSociosanitarias/?locale=es_LA.
 - [Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sareen Sarea](#).

Pedagogia parte-hartzaileei buruz:

- Alva, Miguel y Pérez Alva, Ela (2022): *Investigación-acción y educación popular*. San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusia. Eskuragarri, hemen: <https://dhls.hegoa.ehu.eus/documents/6719>.
- Bideoa: *Alzando Voces: cuerpos con derechos*. Eskuragarri hemen: <https://youtu.be/0tSQdWDID7w?>. Garapenerako Lankidetzako masterra, Universitat Politècnica de València.
- Bideoa: *Proyecto Ciudadano MugiBil – Fotovoz*. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=qRIBZh7HEpM&t=6s>. EHU.
- Bideoa: *Del Cuerpo a la Ciudad Cartografía Social CEIP Vicente Gao*. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=8324nfLVIqA.on>.
- Leivas Vargas, Monique; Aristizábal Boni, Alejandra eta Mendoza Crespo, Montse (2017): *Del cuerpo a la ciudad: repensando nuestros territorios desde la investigación colectiva con cartografía social*. Kult-ur 4 (8):169-90. Universitat Jaume I Eskuragarri hemen: <https://doi.org/10.6035/Kult-ur.2017.4.8.6>.
- Boni, Alejandra eta Millán Gynna (2018): *Relatos para la transición. Experiencias de investigación mediante el vídeo participativo con enfoque global*. Cuadernos Docentes en Procesos de Desarrollo Nº4. Eskuragarri hemen: <https://riunet.upv.es/server/api/core/bitstreams/e67e8a01-90b6-44a9-86e2-bb5f49a88a34/content>.
- Pellicer Sifres, Victoria; Boni, Alejandra; Leivas Vargas, Monique eta Wassel Antich, Victoria (2018): *La experiencia de Aprendizaje en Acción en el barrio de Banicalap: una innovación docente impulsada en el Máster en Cooperación al Desarrollo de la Universitat Politècnica de València*. In-Red Kongresua. Eskuragarri, hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7404178>.
- Leivas Vargas, Monique, Maixas-Pérez, Marta; Fernández-Baldor, Álvaro eta Calabuig-Tormo, Carola (2019): *Aprendizaje en Acción: Tejiendo voces en el Barrio de Na Rovella*. Cuadernos Docentes en Procesos de Desarrollo Nº5. Universitat Politècnica de Valencia. Eskuragarri, hemen: <https://riunet.upv.es/server/api/core/bitstreams/5e48dcbf-bb9e-40b6-9c8f-4d6dbc0431a4/content>.
- Leivas Vargas, Monique; Fernández-Baldor, Álvaro; Maicas-Pérez, Marta, Calabuig-Tormo, Carola (2020): *A Freirean Approach to Epistemic Justice: Contributions of Action Learning to Capabilities for Epistemic Liberation*. Palgrave Macmillian. Eskuragarri, hemen: https://doi.org/10.1007/978-3-030-56197-0_4.

-
- Leivas Vargas, Monique: *Cómo hacer un fotovoz. La aventura de aprender*. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta INTEF (Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Prestakuntzaren Institutu Nazionala). Eskuragarri, hemen: https://laaventuradeaprender.intef.es/wp-content/uploads/2024/10/Como_hacer_un_fotovoz.pdf.
 - Leivas Vargas, Monique (2023). *Metodologías participativas para la innovación transformadora*. Tirant lo Blanch argitaletxea. Eskuragarri, hemen: <https://digital.csic.es/handle/10261/353654>.
 - Vargas Leivas, Monique (2023). *Innovación para la transformación social y ambiental. Una propuesta desde las transiciones sociotécnicas*. 11. kapitulua. Tirant lo Blanch argitaletxea.
 - Leivas Vargas, Monique et al. (2022): *They Take Away What We Are. Contributions of a Participatory Process with Photovoice to the Capabilities for Epistemic Liberation of Young People*. Journal of Human Development and Capabilities, 23(1), 50–72. Eskuragarri, hemen: <https://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/19452829.2021.2005555>.
 - Leivas Vargas, Monique et al. (2022): *Capabilities for epistemic liberation: the case of hermeneutical insurrection of the Network of Community Researchers in Medellín, Colombia*. Journal of Global Ethics, 19(1), 43–62. Eskuragarri, hemen: <https://doi.org/10.1080/017449626.2022.2079707>.
 - Leivas Vargas, Monique eta Boni Aristizábal, Alejandra (2022): *Educación liberadora: opresiones y capacidades para la liberación epistémica en la educación superior*. Sinergias – Diálogos Educativos para a Transformação Social, N° 13. Eskuragarri, hemen: https://sinergiased.org/wp-content/uploads/2022/07/Sinergias_14_VF.pdf.
 - Malo, Marta (2004): *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia. Traficantes de sueños*. Eskuragarri, hemen: <https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Nociones%20comunes-TdS.pdf>.
 - Ruiz Osoro, Pepe; Sainz de Murieta Mangado, Joseba; Villena Camarero, Unai eta Zelaia Eizaguirre, Arrate (2021): *Diseñando la evaluación de TFG/TFM para la transformación ecosocial. IMugarik Gabeko Ingeniaritza Euskadi*. Eskuragarri, hemen: <https://nube.isf.es/index.php/s/gtfamSAGzFkKQwF>.

Gida honetan erabilitako bibliografia:

- COLLINS, Patricia Hill (2000): *Black Feminist Thought. Knowledge, consciousness and the politics of empowerment*. London: Routledge.
- CRUE (2024): *La universidad española en cifras (2021-2022)*. Eskuragarri, hemen: <https://www.crue.org/wp-content/uploads/2024/06/UEC-2021-2022.pdf>.
- D'EMILIA, Dani eta CHÁVEZ, Daniel B. (2015): *Ternura radical es... Un manifiesto vivo*. Eskuragarri, hemen: <https://danimilia.com/2015/08/12/manifiesto-de-la-ternura-radical/>.

-
- Freire, Paulo (2003): *Pedagogía del oprimido*. Ciudad de México: Siglo XXI.
 - Hooks, bell (2021): *Enseñar a transgredir. La educación como práctica de libertad*. Madrid: Capitán Swing.
 - Márquez Vázquez, Carmen (2022): *Situación del Personal Docente e Investigador con discapacidad en el sistema universitario español*. Inclusión y Diversidad bilduma. 33. zenbakia. Eskuragarri, hemen: <https://sid-inico.usal.es/wp-content/uploads/2022/10/situacion-docentes-universidad.pdf>.
 - Navarro, Amparo eta Vega, Cristina (2007): *Mediaciones y traslaciones. Gramáticas visuales de la violencia machista en la universidad* (audiovisual y guía de visionado). Madrid: Traficantes de Sueños. Ez dago dokumentalik.
 - Revelles-Benavente, Beatriz eta González Ramos, Ana M. (eds) (2019): *Género en la Educación. Pedagogía y Responsabilidad Feministas en Tiempos de Crisis Política*. Madrid: Ediciones Morata.
 - Martínez-García, Patricia eta Aguado-Peláez, Delicia (2025): *Enredándonos para vidas vivibles. Reflexiones y propuestas para encaminarnos a territorios habitables*. Aradia Cooperativa, pp. 59-65. Eskuragarri, hemen: [9fbd6131b64bc882f3dbcf59ac0cab63d00fd3a5.pdf](https://doi.org/10.1016/j.9fbd6131b64bc882f3dbcf59ac0cab63d00fd3a5).

| Informazio gehiago |



| Antolatzailea |



| Finantzazioa |

